



1995ko otsailak 3

263. zenb.

PRESS

ARRA

ARKOTXA UGALDE 10URDES (UIDALETXEA)
HERRIKO PLAZA
ARRASATE 9
0



Erreka garbitzea ezinezkoa ote?



Arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L. Iñarra, 24-Behea ☎797489
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ☎791531

ALERGIA ETA ASMA

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43 ☎798100 / 798111

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎799560
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk ☎797223
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎797190
DENTAL-ZURI (Lagun-Aro, Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33 ☎770136
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎797388
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º ☎796945
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎771263

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ☎796578
LOREA ARANBURU Drea. BETI-ONA GIMNASIOA Uribarri Etorbidea, 12 ☎770067

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎770396

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ☎792018

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ☎797946
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎794877

MASAIARIAK

IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º ☎791818

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎794422

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎792598
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29 ☎791698

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ☎795075

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ☎798816
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎794877

REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI -TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎770040

Dibertsitatea

Dibertsitatea errealitate ukáezina dugu. Historiako une guztietan izan du gizakiak dibertsitatearekin topo egiteko aukera. Migrazioak betidanik izan dira eta hauekin batera arraza, kultura eta pentsakera desberdinetako gizakiak jarri dira bizitzen lur-inguru berean. Arrasate gure herriak ere fenomeno hau jasan izan du, eta datozen urteetan ere, fenomeno honekin bizitzen ikasi beharko du.

Dibertsitateaz aritzean, alderdi desberdinetako dibertsitatea esan nahi dugu: kulturala, hizkuntzazkoa, arrazazkoa, erlijiozkoa, pentsakerazkoa,... Esan bezala, gaurregun ez dago fenomeno honetatik alde egiterik, berarekin bizitzen ikasi behar dugu, baita aldi berean berarengandik etekina ateratzen ere. Baina gu ez bezalakoezin bizitzea ez da gauza erraza, gugandik desberdintzen den guztiarenganako mesfidantza sentitzen baitugu. Eta honen lekuko ditugu arraza edo leinu desberdinen artean, munduan eta historian zehar, zabaldu diren gerrak eta genozidioak.


Angela Maria da Dilvak, brasildarra bera, ARRASATE PRESSEDEN esaten zuen bezala "Dibertsitate kulturala onartzen irakatsi behar zaie gazteei". Hau egia da, baina hau ezin daiteke nahi gabe edo egun batetik bestera egin. Horretarako, hau burutzeko borondatea izateaz gain, programa zehatzak behar dira. Programa hauek betetzeko tokiak Derrigorrezko Lehen eta Bigarren hezkuntzako eskolak, Institutua, Lanbide Heziketako eskolak eta Unibertsitatea dira, duda-

rik gabe. Eta honetaz gain, familiak eta gizarteak ere bere borondatea eta laguntza agertu beharko lukete. Programa honetan beren kultura ezagutu ondoren besteena ezagutzeko aukera eman behar zaie gazteei. Jakintza guzti hau kulturaren alor guztietara hedatu daiteke: medizinarra, literaturara, ekologiara, eta abar.

Adibide bat jartzeko, esan daiteke, egungo gazteek jakin beharko luketela medizinan, esate baterako, aurkikuntzarik garrantzikoena Estatu Batuetan eta Europan burutzen direla gaurregun. Baina honekin batera jakin dezatela medizinararen hastapenak gaurregun aipatu ere egiten ez diren kulturetan gertatu zirela, Grezian, Alexandrian eta Erroman, hain zuzen. Eta hastapen hauei esker garatu ahal izan dela zientzia hau gaurregun mailara heldu arte.

Bestalde, eskoletako kurrikuluma eta hezkuntz proiektuetan erreparatu egin beharko genuke, ikus-teko, aipatu dibertsitatean bizitzeko eta pertsona bezala hazteko aukerarik ematen ote zaion gazteari. Batzuetan, badi-rudi, gaurko teknologia berrien esparru zabal eta erakargarriak itsutu egiten gaituela, zenbait kasutan desoreka sortuz eskolako kurrikulumean.

**MATILDE
SAINZ
OSINAGA**



ARRASATEN

POXPOLIN

**Umeentzako
oinetakoak
eta
berezitasunak**

Zerkaosteta, 15
Tfnoa: 79 61 13

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Gaizka OIabarrieta.

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

IRAGARKIAK BANATZEKO
EDO BUZONEORAKO
PERTSONAK BEHAR DIRA.

Baldintzak:

18 urtetik gorakoak eta
autoa izatea

Dei egin 77 13 97 tfnora
astelehenetik ostiralera
11etatik 12etara.

**MARGOAK
JUANMA**

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?**

Agian,

**“Alkoholiko Anonimoek”
lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Maltzaga-Urbina

Gure bailararen defentsan:

Gure bailararen etorki-zunaren alde apostu egitea Maltzaga-Urbina autopista eraikitzearen aurka egitea da.

Bailarako errepideek hobekuntza sakonak behar dituztela onartzen dugu baina hauek arazo errealei erantzun behar diete eta beraz gure ustez, arazo horien irtenbidea ez dago autopista bat eraikitzean, oraingo errepideen hobekuntza sakonean baizik.

Arrazoi kontaezinak daude M-U autopistaren aurka egoteko: bailarako trafikoaren beharrei ez erantzutea, gaurregun N-1 eta A-8/A-68 (Behobia-Bilbo eta Miranda) ardatz nagusietatik iragaten den nazioarteko trafikoa artifizialki erakarri nahia, ingurugiroari, gizarte-ari, ondare historiko-kulturalari eta bizi-kalitateari egiten zaien kalte onartezina, lurraldearen ardatz banatzailea izatea, garapen ekonomikorako nahitaezkoa ez izatea, finantziaroko A-8 autopistaren peajea luzatu beharra...

Arrazoi guztiongatik hauek azpimarratuko genituzte:

A) Garapen ekonomiko

“Garraiorako azpiegiturak ez dute, huts-hutsean, garapenik sortzen...”

Ekonomia ez da hasten garraioaren arabera, beste hainbaten artean faktore bat besterik ez da. Ez da egia autopista eraikitzeak berpizte ekonomikoa ekarriko duela, eta ez dira adibideak falta: urteak dira Deba

Beherean autopista bat daukagula eta, arazo ekonomikoak konpondu al ditu? eta, oraindik argiagoa dena, Laudioko kasua zer?

Eskandalagarri eta lotsagarria da berpizte ekonomikorako plan orokorrik ezean autopisten eraikuntza eskeintzea, heldu beharreko iltze gorria bailitzan. Gure arduradun politikoeak daukaten garapen eredu horrek inoiz ikusi gabeko krisi ekonomiko, sozial eta ingurugirokora eraman gaitu.

Autopista dirugaltze izugarria da. Inmoral da krisi garai hauetan hainbeste dirulan faraoniko eta alferrikoak egiten botatzea eta are okerrago askoz diru gutxiagorekin beharrian errealei erantzuten dieten hobekuntzak egin daitezkeenean.

B) Finantziarioa

Autopistarako aurrikusitako kostu minimoa 89.000 milioi pezetakoa da (hasiera batetan...), izaera mistoa izango duen finantziarioaz (fondo publiko eta pribatuak).

Aurkeztutako proiektuan A-8aren bidesariaren luzapen estalia ikus daiteke (Europako bidesari garestienetako bat).

Maltzaga-Urbina-ren bidegarritasun ekonomikoaren ikerketek (MECSA, BBV...), bere eraikitarako finantziarioa, esandako bidearen bidesaria ipintzeaz gain, Bilbao-Behoviaren bidesaria 2014 edo 2020 urterarte (gutxienez) luzatuaz soilik lortuko dela adierazten dute.

Uste dugu ezinbestekoa dela A-8aren bidesaria lehenbait lehen liberalizatzea, herriaren behar eta desio zahar bati erantzunez.

Sudupe: “A-8aren bidesaria luzatzen ez bada ez da Maltzaga-Urbinarik egongo”. (Diario Vasco 29-10-93)

Manipulazio baten historia:

-IGPtako debatego gal-tzaile handia administrazioa da, bere autopistaren proposamena %15k soilik bultzatu zuen eta.

-Maltzaga-Urbina-ren bidesariaren bultzatzaileak %5 urri batean geratzen dira, %24 batera igotzen delarik bidesari hori “biguna edo soziala” izateko kasuan.

-A-8aren bidesariaren luzapena %16ak onartzen du eta %63ak aurkako jarraera azaltzen du.

-Ba al zenekien DEBASAK, IGPen emaitzak gaintzeko talde partehartzailen emaitzak baino hila-bete lehenago jaso zituela, euren irakurketa alde batekoa eginez eta argi eta garbi desitxuratuz?

-Ba al zenekien IGPen arduradun zen *Les Gizarteaz* enpresak gutun bat bidali ziela partehartzailerei, emaitzak baloratzeko aurrikusitako bilera bertan behera gelditzen zela esanez DEBASAREN presioak zirela eta?

-Horrenbesteko beldurra al zion DEBASAK emaitzen irakurketa neutral bati?

-Herriarren iritziak arazoia ematen dienean bakkarrik balio al die bada instituzioei?

-DEBASAKO “demokratek” errespetatuko al dituzte IGPen emaitzak?

-Ez A-8aren bidesariaren luzapenari.

-Ez autopistari.

HARAN-BIZIA

Baduzu Deba erreka garbi zegoeneko akordurik?



Luisa Galdos
Jubilatua
(89 urte)

Oso polita zela gogoratzen dut. Baserrian bizi ginen eta erreka jeisten ginen bainatzera; arrainak ere bazeuden, amurrainak! Pena da orain hain zikin gotea.



Felipe Urteaga
Ulmako langilea
(58 urte)

Nik 58 urte ditut eta sekula ez dut Deba erreka guztiz garbi ezagutu. Dena dela, gero eta zikinago dagoela konturatzen naiz eta desastre hutsa da.



Rosi Hernandez
Etxekoandrea
(57 urte)

Ni sekula ez nintzen erreka joaten, baina bai, gogoratzen dut garbi zegoela. Orain pena ematen dit hain zikin ikusteak. Ez lukete dagoenetan utzi behar.



Anastasio Ibarluzea
Jubilatua
(71 urte)

Ni errekan arrainak harrapatzen ibilitakoa naiz baina ez zait pentsatzen guztiz garbia sekula egon denik. Hori bai, orain askoz zikinago dago.



Maria Amado
Etxekoandrea
(59 urte)

Nik izugarri polita ezagutu izan dut. Lehen amurrainak ere bazeuden. Orduan igerilekurik ez zegoenez, ume eta guzti joaten ginen bainatzera.




Xabin Arrieta
Jubilatua
(80 urte)

Erreka Ferixalekutik pasatzen zenean, loinak eta beste arrain pila bat harrapatzen genuen. Pena da dagoen bezala ikustea eta ezer ez gitea.



Delfina Iglesias
Etxekoandrea
(55 urte)

35 urtean bizi izan naiz Arrasaten eta erreka beti ezagutu dut zikin. Txarto iruditzen zait horrela edukitzea, garbitu egin beharko lukete.



Nicanor Alvarez
Jubilatua
(71 urte)

Oso ondo gogoratzen dut garbi zegoen garaia. Makina bat kangreju harrapatu izan dut eta. Orain ez dago errekan hankak bustitzerik, edozein gauza harrapatzeko ere!

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfn: 79 14 99

HITZALDIA

Emakumearen autonomia legedian eta praktikan

HIZLARIA: Nekane San Miguel. *EPAILEA*

TOKIA: Pablo Uranga, 4 behea

EGUNA: Otsailaren 9an, arratsaldeko 6etan.

ANTOLATZAILEA: EKIN emakume taldea

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritotxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati76 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubilagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3
 Egunez eta gauez: Puy. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Morales. San Andres.
Larunbata 4
 Egunez eta gauez: Guallar. Bergara
 Gaueko 10.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
Igandea 5
 Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Español. Iturriotz
Astelehena 6
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Corcuera. Musakola.
Asteartea 7
 Egunez eta gauez: Mozos. Bergara.
 Gaueko 10.00ak arte: Irizar. Erguin.
Asteazkena 8
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
 10.00ak arte: Amezua. Sta. Marina.
Osteguna 9
 Egunez eta gauez: Guallar. Bergara.
 10.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

3 OSTIRALA

ZINEA
 "Entrevista con el Vampiro"
 7etan eta 10etan.

SAN BLAS EGUNA
 Goizeko 11etan meza Aretxabaletako Apotza-Etxebarri auzoko San Blas ermitan. Mezetan eroandako janaria bedeinakutuko da.

GESALIBARKO JAIK
 Arratsaldeko 6etan kanpaia joko dituzte eta etxaleroak bota. 9etan bertso-afaria Jentil-Ola Elkarte. Bertsolariak: Murua eta Lizaso. Ondoren dantzaldia Mikel Lasa soinu jolearekin. Gazte Asanbladak antolatuta: Arratsaldeko 7etan umeendako jolasak eta buruandiak. 10.30etan Torni show. 12etan bolatokia zabalduko da.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Otsailaren 16tik ekainaren 15era, euskal dantzen ikastaroa 10 - 14 urte bitartekoei zuzenduta. Ostegunetan 6.30etatik 7.30etara. Maila desberdinak. Prezioa 1.000 pta. Otsailaren 24tik ekainaren 16ra, ostiraletan 7etatik 8.30etara. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Prezioa: 1.000 pta.

IGERI LEKUA ITXITA

Otsailaren 13tik 19ra Igerilekua itxita egongo da. Euskal Jaurlaritzaren araudia betetzeko, egin behar dituzten garbiketa lanak direla eta.

4 LARUNBATA

ZINEA
 "Entrevista con el Vampiro"
 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SANTA AGEDA KORUA
 Goizeko 8etan meza parrokian. Korua Arrasateko auzo eta kaleetan ibiliko da egunean zehar.

TXATXILIPURDI-AEDKO LUDOTEKA
 Txatxilipurdi-AEDko ludoteka ibiltaria Musakolan, goizeko 11etatik ordubatera Musakolako alkatetzan, Maixu Aranbarri plazan. OHoko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. mailakoei zuzenduta.

ERAKUSKETA GAZTETXEAN
 RON-COB-en marrazki komikiak. Garapenari eta manipulazioari kritika eginez, umore beltza. Arrasateko Gaztetxean.

GESALIBARKO JAIK
 11etan jaialdia umeentzat. 11etatik ordubatak arte marrazki erakusketa. 12etan meza auzoko hildakoen alde. 2.30etan auzoko abesbatza aterako da bere zaindariaren omenez kantatzeko. 11.30etan dantzaldia Txinparta taldearekin. Gazte Asanbladak antolatuta: 11.30etan umeendako jolasak. 2.30etan herri bazkaria. 10.30etan Rock jaialdia, Xementerio, Iskanbila eta Mad Shadow taldeekin. Sorpresa ere izango da. 12etan bolo txapelketa. Goizaldean txokolatada.

5 IGANDEA

ZINEA
 "Entrevista con el Vampiro"
 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SANTA AGEDA MUTILAK
 Gaurtik otsailaren 26ra, Aretxabaletako Santageda mutilak dantzan egingo dute domekero Herriko plazan arratsaldeko 7etan.

KONTZERTUA
 "Aulos Ensemble" boskotearen kontzertua (oboe, klarinete, fagot, tronpa eta pianoa). Amaia Antzokian arratsaldeko 7etan. Arrasate musikalek antolatuta.

GESALIBARKO JAIK
 12etan meza auzoko eta Gargartzako koroek kantatuta. Meza ostean, salda eta pin-txoak nahi duten guzientzat. Gazte Asanbladak antolatuta, arratsaldeko 4etan Mus txapelketa.


KOTXE KARABANA HONDARRIBIRA
 Estatuko terrorismoa Euskal Herriaren aurka lemapean kotxe karabana Hondarribira. Bertan, GAL-ek hildako guztiak omenduko dira. Arrasatetik irteera goizeko 10etan, Mecako aparkalekutik.

AEDKO BERTSO ESKOLA

AED elkarteak 11-14 urte bitarteko neska-mutilentzat bertso eskola antolatuko du. Ostiral arratsaldetan bilduko da lan-taldea ikasturte amaiera arte. Argibide gehiagorako AEDra zuzendu eta Esterrekin jarri harremanetan. Telefono zenbakia 771228.

6 ASTELEHENA**ZINEA**

"Enprevista con el Vampiro"
7etan eta 9.30etan.

**ERAKUSKETA**

Ilustratzaile erakusketa ibiltaria
otsailaren 6tik 12ra.
Ikastetxeetarako ordutegia:
9.30etatik 12.30etara eta
2.30etatik 5.30etara.
Jendearentzat 6etatik 8ak arte.
Erakusketa haurren
liburutegian dago.

IKASTAROAK

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak hainbat ikastaro antolatu du: tapiz eta makrame eta bolillo enkaje ikastarook, asteartetan 6.30etatik 9etara. Asteartetan 3.30etan bolillo enkaje ikastarook. Ostegunetan 3.30etan, tapiz eta makrame ikastarook. Izenematea zabalik dago.

**ERAKUSKETA**

"Gailurretan", Iñurrategi anaien erakusketa
Monterronen, otsailaren 7tik 22ra. Ordutegia:
egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta
jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez
6etatik 8ak arte.

7 ASTEARTEA**ZINEA**

"Entrevista con el Vampiro"
7etan eta 9.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Zer da Bolondresaritzta?".
Hizlaria: Estibaliz Andrió,
I.C.T.Eko sendagilea. Jubi-
latu etxeek antolatuta, Mon-
terronen, arratsaldeko
4.30etan.

HITZALDIA

Gaia: "Yosemite-Pumori (har-
kaitz-eskaladatik mendi
handi bateko igoaldira)".
Hizlariak: Iñurrategi anaiak.
Monterronen, arratsaldeko
7etan.

HITZALDIA

...Eta Kitto! aldizkariaren 100.
alea ospatzeko hitzaldia.
Gaia: "Herri komunikabide-
en zeregina eta eragina
Euskararen normalizazio-
an". Arratsaldeko 7etan.

8 ASTEAZKENA**MAHAINGURUA**

Gaia: "Borondatezko lanetan
esperientzia duten pertsona
nagusiak". Monterronen,
arratsaldeko 4.30etan. Jubi-
latu etxeek antolatuta.

HITZALDIA

Gaia: "Makaluko espedizioa"
(lehen zortzimilakoa). Hiz-
lariak: Iñurrategi anaiak.
Monterronen, 7etan.

9 OSTEGUNA**HITZALDIA**

Gaia: "K2ko espedizioa". Hizla-
riak: Iñurrategi anaiak. Mon-
terronen 7etan.

HITZALDIA

Gaia: "Emakumearen autono-
mia legedian eta praktikan".
Hizlaria: Nekane San
Miguel, epailea. Tokia:
Pablo Uranga, 4 behea,
arratsaldeko 6etan. EGIN
emakume taldeak antolatu-
ta.

HITZALDIA

...Eta Kitto aldizkariaren 100.
alea ospatzeko. Gaia: "Eus-
karazko herri prentsaren
etorkizuna". Arratsaldeko
7etan.

ERAKUSKETA

Victor Ayalaren pintura erakusketa Harresi Aretoan,
otsailaren 3tik 19ra. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara.
Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**TRABESIA**

Besaide Mendizale elkarteko eski taldeak trabesia bat
antolatu du Panticosara, otsailaren 11 eta 12an. Izene-
matea: otsailaren 6 eta 7an, 7.30etatik 8.30etara Besai-
deren egoitzan. Beharrezkoa: federatua egotea, mendi
eskiko materiala eta piolet eta kranpoiak izatea.

“Ene sorlekuan sekulako inportantzia dauka kooperatibismoak. Dauden enpresa gehientsuenak zerikusia daukate kooperatibismoarekin. Hori dela eta, ikaragarri hazi da Arrasate. Banku eta aseguru konpainia propioak ditu, eta industria eta zerbitzu munduan hain ohiartzun haundia, non enpresa holdingtzat har genezakeen. Enpresa langileena eurena da, eta langile eta zuzendaritzaren arteko desberdintasunak beste enpresa batzutan daudenak baino askoz txikiagoak dira. Solidaritatea eta lanerako gaitasuna ere aitatzeoak dira. Kooperatiba batean helburu bakarra daukate denok, eta ez dio inporta zenbat denbora eman behar duzun lanean. Hori oso ona da enpresarentzat”.

Andoni Zubizarreta 95eko urtarrilean. **EU lankide**

“Beste mila gauza egingo nituzke gustura, baino ez naiz kexu. Bigarren lehiaketa izanik, bigarren pauso bezala planteatzen dut. (...)

Hutsune bat betetzen dabilta herri telebistak. Biharko eguneko profesionalentzako aukera dira. Oso proiektu interesgarriak dira”.

Jon Andueza 95-1-22

ARGIA

“Haur eta gazte literaturak sekulako indarra dauka, eta ez bakarrik hemen, Euskal Herrian, baita inguruko literaturetan ere. Baina era berean, esan beharra daukat oso kezkarria dela haur-literaturako lanak eta bestalakoak erdaretara itzultzeko orduan argialetxeek erakusten duten ajolabekeria. Ez dute inolako ahaleginik egiten gure idazleen lanak kanpoan ezagutarazteko. Horrela, euskal idazleok oso merkatu murriztuta eta mugatuta mugitzen gara, eta beraz, zaila da oso euskal idazle batek gosaria besterik ez bada ere, literaturatik irabazi ahal izatea”.

Gerardo Markuleta 94ko abenduan. **KONTZEJUPETIK**

Zer dela eta “Arrasate Gure Herria” liburuaren bigarren argitalpena?

Lehenengo argitalpenean batera ziren bi mila aleak agortu egin dira eta horregatik, beste mila ale plazaratzea erabaki da. Bigarren argitalpen horrekin aleak zati baterako izatea espero dugu.

Bigarren edizioiko liburua berdina izango da, ikutu bat edo beste baino ez ditut egin. Batetik, lehenengo edizioan tipografia eta toponimia aldetik gaizki azaldu zena zuzendu dut eta baita oker agertu ziren datuak ere. Historia sailean bestetik, transizio garaitik gaurko egunera arte Arrasaten zein

aldaketa izan diren jaso dut orrialde batean. Gainera, gauza batzuk lekuz aldatu ditut, kontestu okerrean zeuden-eta. Bukatzeko, etnografia sailean, ohitura bihurtu nahi diren ospakizun batzuen kontakizuna egin dut, esate baterako: txarri dantza, errementari dantza...

Bigarren edizioa, gainera, gazteleraz, frantsez eta ingelesez argitaratuko da. Bostehun ale hizkuntza bakoitzean. Euskal Herria elebiduna dela kontutuan izanik, eta jendeak liburua kontsultatzeko nahia bazuela jakinda, liburua gaztelerara itzuliko da eta, bide batez, ingeles eta frantsezera ere bai, bisitariari oparitzeko. Hala ere, ez da liburu moduan aurkeztuko; hau da, idatzirik dagoena itzuliko da baina ez da argazkirik-eta jarriko.

Itxura denez, liburua arrakastatsua izan da eta Monterrongo liburutegian gehien erabiltzen denetarikoa ei da. Baina liburua ez da enziklopedia, gero garatu nahi den gaia ezagutzeko abiapuntua baino ez da.



Iñigo Ramirez de Okariz

Historialaria eta liburuaren egilea

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA

UNITATEA

Garciandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN

UNITATEA

Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA

GINEKOLOGIA UNITATEA

Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA

UNITATEA

J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA

Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2

BERGARA

Tfnoa: 76 59 39/72

Faxa: 76 25 72

UCEM Arrasate

Urtarrilaren 25ean, Zubizarreta Kontsultorako arduradunak eta UCEM Arrasate enpresako akziodunak Arrasateko epaitegian elkartu ziren kontratua sinatzeko. Kontratu horren arabera, Zubizarreta Kontsultora da UCEM Arrasateko gerentea. Orain, berriz, zein produktu berri egin daitezkeen aztertzea eta lanpostuak mantzentzea izango da kontsultoraren zeregin nagusia. Aurtengo erroka 115 lanpostu mantentzea izango da. Hurrengo urterako 150era jaso nahi da kopuru hori. Gaurko egunean, guztira 174 langile daude Cerrajerua eta Transformadosen.

“Kooperatiben esperentzia”

Hilaren 27an, ostirala, “Kooperatiben esperentzia” izenburupean hiru bideoen aurkezpena egin zen Aretxabaletako Otalora jauregian. Bideoetan, Arrasateko kooperatibismoaren hasierak kontatzen dituzte horren bultzatzaileak izan zirenek. Aurkezpenean esanenez, munduko toki desberdinetatik etortzen diren bisitariei hemengo kooperatibismoaren berri emateko balio izango dute bideook. Iaz 71 erakunde etorri ziren Otalorara eta guztira 708 lagun izan ziren bisitari.



Batzar Orokorra

Joan zen urtean hil ziren 72 bazkideen oroimenez meza egin eta gero, San Felipe Apostol elkarteko bazkideek urteko Batzar Orokorra egin zuten domeka eguerdian. Batzarrean esan zutenenez, urtea ondo joan da, eta auto berria erosi duten arren, milioi bat aurreztea lortu dute.

Ekitaldian hainbat erabaki ere hartu zen. Hemendik aurrera, hilda gero sortzen diren ohiko gastuak ordaintzeaz gain, 30.000 ptako laguntza ere emango du elkarteak. Bestalde, orain arte arrasatearra izatea beharrezkoa bazen bazkide izateko, hemendik aurrera, inguruko herrietako biztanleek ere bazkide izan ahalko dira. Aurrerantzean titularrak senarra eta emaztea izango direla ere erabaki zen.

San Felipe Apostol elkartean 3.400 familia daude eta guztira 11.000 bazkide ditu. Jose Luis Ezkurra lehendakari ohiaren iritziz, nahiz eta elkarteko bazkide izatea askoz ere merkeagoa izan, oraindik jendeak aseguru etxeetan ematen du izena.

Protesta ekintza

Arrasateko Jarraik deituta, hainbat gaztek protesta ekintza egin zuten hilaren 20an. Arratsaldean, berriz, Gasteiz, Bilbo eta Donostian egin ziren protesta ekintzak.



Manifestazioa

Zapatu arratsaldean manifestazioa izan zen Aramaioko kaleetan zehar. Iban Astondoa, 22 urteko lehen intsumisio aramaixoarra asteartean epaitu zutela-eta egin zen manifestazioa. Ekintza bukatutakoan, intsumisioaren aldeko idatzia irakurri zuen Udaleko zinegotzi batek.

Hitzaldia

Arrasateko jubilatutako etxeek antolatutako kultur programaren barruan, “Nolakoa da nahi dugun jubilatutako etxea?” izenburupean hitzaldia izan zen asteazkenean. Paco Alvarez, Bixente Azkarate eta Andres Inda izan ziren hizlari: hirurak ere jubilatutako etxeetako lehendakariak. Hizlariak azaldu zutenenez, jubilatutako etxeen helburua bazkideen arteko hartu-emanen sendotzea da.

JAIOTZAK

- Jokin Ruiz Kortabarria. Urtarrilaren 13an.
- Jone Balanzategi Gutierrez. 19an.
- Ismael Muñoz Gomez. 28an.

HILDAKOAK

- Marta Seigido Ancede. Urtarrilaren 23an. 31 urte.
- Gregoria Agiriano Argarate. 25ean. 84 urte.
- Filomena Cornes Villar. 26an. 80 urte.
- Jose Mari Arabaolaza Aizelay. 26an. 86 urte.
- Julian Garro Mendizabal. 28an. 46 urte.



ZERBITZU SAREA

J. Alvarez - J. Martinez C. B.
☎ 77 01 64

- Gremioen koordinazioa
- Mota guztietako obrak
- Mantenimendua eta konponketak
- Era guztietako zerbitzuak

NAROKI

Bitxitegia - Liburudenda

Otsailaren 14ean San Valentin eguna
Zure oparia NAROKIn aurkituko duzu.

Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47



* PITER ENCINAS

Ez erosi, ezta erabili ere, larru iletsuzko berokirik

Gabonetako kontsumoaren aurkako kanpainan esaten genuen, besteak beste, "gu gizakiok, itxurak eta imajinak txundituta gaude". Eta egia da; nola ulertu bestela larru iletsuzko berokiak erostea hainbestearinoko hotzik egiten ez duen Euskal Herri honetan?. Kobetan bizi ziren gure arbasoek bazituzten ere, gaur egun ez da horrela, hotsa kendu nahiz gure gorputza apaintzeko jantziak egiteko lehengai ugari baititugu, larru normaletik hasi eta artila, kotoi edo lihoraino.

Larru iletsuzko industriak eta kontsumoak animalientzako izugarriko hondamendia dakar:

Edozein animalia basatiri gerta dakiokkeen gauzarik txarrena, inongo beharrik gabe bizia galtzea da. Larru iletsuaren industriak 140 milioi animalia basatitik gora hiltzen ditu urtero. Hilketak hauetan beroki hauek erosten dituztenek ere erantzunkizun garrantzitsua dute. Hil aurretik animaliei erantzen zaien so-

frimenduak beldurgarriak dira; basatien kasuan zapo eta tranpen bidez harrapatzen dituzte eta agonia luze baten ondoren hiltzen dira, basetxe edo granjetakoen bizimodua zein hilketak ez da hobea, izugarriko "stress-a" sortzen dien kaxa txikietan bizi, eta, debekatuta dauden metodoen bidez hiltzen baitira.

Larrua dela medio, azkeneo mendeetan itsasoko bisoia eta Malvinetako azeria desagertu egin dira eta beste espezie batzuk desagertzen ari dira. Hauen artean: tigrea, pantera, kastorea, txintxila... Gugandik gerturago, bere larruaren edertasunaren ondorioz sufritu dutenak ere badira, katamotza eta ugaberea esaterako. Gogorra baldin bada arestian aipaturiko faunarekiko zarrastelkeria, larruaren industriak, animalien izaerarekin zerikusia duen beste galera batzuk ere egiten ditu. Manipulazio Genetikoa, animaliek larru handi eta politagoa izan dezaten egiten da, horrela granjetako bisoiek

basatiak baino handiagoak izan daitezke eta birsorkuntza indize altuagoa eduki dezakete. Abere basatiak, etekin hobekak lortzeko, etxabere bihurtu dituzte, honela, txakurrek gizakiokin bizitzen 1.200 urte daramate. Larruaren industriaren 75 urteetan ezin izan da azeri edo bisoi bat etxabere bihurtu. Granjetako abereek ihes egiten dutenean eta inguruan bizitzen hasi, autoktonoak ez direnez gero, izugarriko desoreka ekologikoa sortzen dute.

Larruaren industriak, animalien hazkuntzan nahiz ondorengo prozesu produktibo osoan erabiltzen diren metal eta sustantzien ondorioz, inguruko ibaien ekosistemak kutsatzen ditu.

Segurazki, bati baino gehiagori hemen azaldu ditugunak ñoñokeriak irudituko zaizkio, edo eta, ekologista erradikal itsu batzuen iritziak. Ekologistok animalien alde lan egiten saiatzen gara, baita gizaki eta bere bizi kalitatearen alde lan egiten ere. Errekurtso natural eta faunistikoen zaintzea bizi kalitatea defendatzea da, eta larru iletsuaren industriak daraman luxuak 140 milioi abere hiltzeaz gain, izugarriko jaki eta energia pila alferrik gatzatzen du.

Natura zaintzeak eta ahal denik eta egoera onenean mantentzeak zarrastelkeria baztertzea eskatzen digu. Larru iletsuaren harrokeria ez doa bide horretatik. Ingurugiroa egoera onean mantentzea da gizakiontzat berokirik eta osasun iturririk onena. Beraz, zuzat, animalientzatik, naturagatik, ez erosi ezta erabili ere larru iletsuzko berokirik.

* EKIKO KIDEA

USTEAK USTE

EMAKUMEAK ETA BORTIZKERIA

Ez dakit azkenetara maizago entzuten ari garen emakume bortxatu eta jipoituen kasuak edo, kasualitatez, nire belarrietara kasu gehiago heltzen zaidan. Oraindik oraintsu komunikabide guztietan azaldu zen bortxatua eta erahila izan zen emakume baten kasua. Eta egia da oso gogorra egiten zaigula horrelakoak entzutea, batez ere emakume hori erahila izan bada, baina gogoan izan behar dugu hainbat eta hainbat bortxaketa gertatzen direla eta, biktimak bizirik jarraiturik ere, gogortasun berdina dutela, kasu guztietan bortxatuak ezezik jipoituak ere izaten direlarik.

Zer dago horrelako ekintza baten atzean? Garbi dago emakumeekiko izugarriko gorrotoa ez dela izkututzen, gorrotoa eta emakumeekin, ezer balio ez duen horrekin, gizaseme ahaltsuak nahi duena egin dezakeela, eta ez da kasualitatea gorroto eta mespretxu hau gizonek emakumeekiko izatea eta ez alderantziz.

Zer egin ordea honen aurrean? Erantzun beharra dago zalantzarik gabe. Erantzun beharra ez bakarrik salaketa eta lege zigorraren bidez, baizik eta heziketaren bidez, gaur egungo neskatila eta mutikoak berdintasunean hesiz, lan zaila benetan, kontutan hartzen badugu oraindik gaur egun gizartetik bertatik jasotzen duten/dugun mezuak, baina hala eta guztiz ere hor eragin behar dugu, bada garaia eta emakumea pertsona bezala eta ez trupu zaharra bezala tratatua izan dadin.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



Inkesta 91 eta 93 urteetako datuekin egin zen.

Ospitaleko arduradunak ez daude ados Eroskiren inkestarekin

Eskualde Ospitaleko arduradunak ez datoz bat Eroski aldizkariaren urtarrikalean Eskualde Ospitaleko larrialdi zerbitzuari buruz esaten denarekin. Inkesta horiek 91 eta 93 urteak bitartean egin ziren eta iaz larrialdi zerbitzua berri egin zenez, gaurko egoera beste bat dela argitu du Inaki Agirianok, larrialdietako zuzendariak. Zerbitzua berriuz aurrerapausu handia eman da Agirianoren ustez: ekipamendua hobetu egin da eta jendeak gutxiago itxoin behar izaten du. Inkestaren emaitzak orain plazaratzea lekuz kanpo dagoela eta gutxienez, oraingo egoeraren berri jaso beharko lukeela uste dute ospitaleko arduradunek.

94EKO IHARDUERA

Eskualde Ospitalean izandako iharduerari buruzko datuek erakusten dutenez, kirurjia programatuak gora egin zuen iaz, hau da, jende gehiago operatu zen bertan. Alvaro Sáenz de Viteri, ospitaleko geren-

tearen esanetan, hori oso datu garrantzitsua da, ospitalea aurrera doan seinale. 93an 1.836 operazio egin ziren eta 1.947 94ean. Larrialdietako kirurjiak, ingresatu eta berehala egiten diren operazioek, berriz, ez dute gora egin.

Ingresoak ere ez dira hazi eta gerentearen ustez, ume gutxiago jaiotzeak izan du eraginik horretan. 93an 500 ume jaio ziren Eskualde Ospitalean eta 94an 404. Ospitalean egon beharreko egun kopuruak ere behera egin du zertxobait. Iaz 5 eta 6 egun bitarteko egonaldia egin zituzten gaisoek, batazbeste. Sáenz de Viteriren berbetan, gainera, ospitale berria egun bateko ospitalizazioa behar duten gaisoentzat egokitzea hobekuntza handia izango da. Kontsultetatik ere, jende gehiago pasa zen iazko urtean, 93an 57.097 eta 94an 60.321.

Aipagarria da scannera gutxi barru jartzeko asmoa dutela eta arduradunen esanetan, tresna horrekin bailarako jendeak gutxiago joan beharko du Gasteiza.

Aurrekontuak eztabaidagai

- Aurtengo aurrekontuak
- otsailaren bukaerarako
- onartu nahi direnez, lan
- egutegia finkatu dute
- Udalean. Datorren astean,
- otsailaren 7an eta 9an
- aurrekontuak eztabaidatuko dira.

Aurten 40 milioi gutxiago heldu dira Udalera Diputaziotik, guztira 1.040 milioi.

Kontratazioa

Udalak bi laguntzaile kontratatu nahi ditu kultur eta jai ekintzetarako. INEMeko zerrendetan oinarrituta egingo dute aukeraketa.

Euskara neurtzen

Arrasateko kaleetan euskararen erabilera zein den jakiteko neurketa egingo du Arrasateko Udalak. Neurketa hori egitea 75.000 pta kostako da AEDkoak arduratuko dira azterketa egiteaz.

Amaierarik gabeko greba

Hauteskunde sindikaletan irregulartasunak izan direla-eta Construcciones Irurok lantegiko langileak, CCOO sindikatuan afiliatuta daudenak, amaiera jakinik gabeko greban daude. Jesus Fuentes langileari, CC.OOko ordezkari sindikalari, lan kontratua ez diotelako luzatu deitu du greba CC.OOko. Azaroaren 11n egin ziren hauteskundeak Irurok lantegian.

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28



Hogeitabat alegazio aurkeztu dira.

Arau Osagarriak, plenotik Diputazioara

Hilaren 5ean egitekoa den udal plenoan behin-behineko onarpenera eman behar zaie Arau Osagarriari. Arau hauek, Arau Subsidiarioak inguru urbanizaezinen gainean gehiago zehazteko egiten dira. Hirigintza batzordeak bere proposamena egin zuen ekainean, eta ondoren, epe bat zabaldu zuten baserri-auzoetako bizilagunek, base-rritarren sindikatuek eta talde ekologistek euren alegazioak aurkez zituzten.

Alegazio horiek aztertu ondoren, onartu direnak hasierako testuari gehitu zaizkie, ondoren udal plenoak behin-behineko onarpenera emateko. Hori lortu eta gero, Diputazioa bidaliko da proposamena, azken onar-

pena eman dezan.

Hirigintzak egindako proposamenaren gainean, hogeitabat alegazio aurkeztu dira: horietatik dozena bat orokorrak izan dira, ENHE eta ENBA sidikatuek, EKI ekologi taldeak eta auzo batzuetako bizilagunek aurkezturikoak. Besteak, ostera, partikularrek egindakoak izan dira. Jakin ahal izan dugunez, nahikoa alegazio onartu da eta ondorioz, hasierako proposamena dextente aldatu da. Auzoetan etxebizitzak egiteko aukera izan da eztabaidagai nagusia eta itxura denez, toki horietan etxebizitza eraikitzeagatik 5 milioik zerga ordaindu behar da.

Santa Agedako korua

- 1994ean, 895.053 pta
- batu zituen Santa Agedako
- koruak Arrasaten. Batutako
- dirua era honetan banatu
- dute: 280.000 pta
- langabetuentzako, 190.000
- pta gaisoen artean
- banatzeko, 205.000 pta
- banatutakoentzat eta ama
- ezkongabeentzako eta
- azkenik, 65.000 pta etxerik
- gabe daudentzat. 93an
- 660.000 pta batu zituztenez,
- Santa Ageda korukoak
- pozik azaldu dira batutako
- diru kopuruaz.

Lapurreten datuak

Iaz lapurretek gora egin zutelako argitaratu genuen joan den astean, baina hauetariko asko kanpoan gertatu direla esan beharra dago. 117 lapurreta Arrasateko Ertzantzaren lan eremuan gertatu ziren eta beste 64 kanpoan, baina azken horiek Arrasateko Ertzaindegian egin zuten salaketa.

Bestalde, Arrasaten izandako ihardueraren berri ere kaleratu du Ertzantzak. Iaz 72 lapurreta, 49 istripu eta 31 alkoholemia kasu izan ziren herrian.

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAL, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

PRESS
ARRASATE
 Harpidetzak:
 77 08 15

DIAMIR
 MENDIRAKO
 EKIPAMENDU
 TEKNIKOA
 Denda berria ireki dugu.
 Ez itsu-itsuan erosi. Eska ezazu aholkua.
 Jon Lazkanok emango dizu.
 HARRURIAGA, 8 BERGARA © - FAX: 76 08 84

MILARIOY
Taberna-jatetxea
Kafetegia
 • Eguneroko menu eta kartako menua
 • Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!
 Larrea enparantza, 5 behea

Larrialdietarako udal zerbitzua sortu nahi da

Ostiraleko, hilak 30eko, udal plenoak larrialdietarako udal zerbitzua sortzea izango du eztabaidagai. Onartuko balitz, herrian gerta daitezkeen sute, uhole eta larrialdiei erantzutea izango litzateke eratu nahi den zerbitzu berri horren helburua. Udalteko hamarren bat bolondresek osatuko lukete lantaldea, brigadetako eta udaltzaingoko langileek batez ere. Ekimen horri ekitea onartuko balitz, Udalak ordainduko luke zerbitzuaren aurrekontua baina Diputazioari laguntza eskatzeko asmoa ere badago.

Horrez gain, San Kristobal hilerriaren araudia aldatzeko proposamena erabaki behar zuen Udaltzarak. Nitxoeren gaineko hilarria nork jarri behar duen zehaztu barik dagoenez eta arazoak



Sute, uholde eta larrialdiei erantzungo die zerbitzuak.

egon direlako, Udalak berak jarri nahi du hilarria. Nitxoeren garestitzea ekarriko du horrek.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuen sailerako langile bat kontratu nahi dela-eta, aukeraketa hori egiteko oinarriak

finkatu beharko zituen gaur udal plenoak. Lanpostu hori finkoa izango da.

1994ko martxoaren 4ko osoko bilkuran hartutako akordioaren legalitatea ere defendatu beharko zuten zinegotziek. Iaz, antimilitaristek intsumisioaren alde jarri zuten mozioa onartu egin zen, aldeko hamar botorekin eta aurkako beste hamarrekin (zinegotzi sozialista bat falta zen). Ikusi egin beharko da beraz, estatuko abokatuak jarritako errekurtsioak babesik izango duen ala ez.

Santamaina kalea zabaldu egin nahi denez, Santamaina Elkartearen lokala erosteko proposamena ere onartu behar zen. Horrela balitz, Arrasateko Udala eta Santamaina Elkartearen artean lokal trukea egingo da.

LORAMENDI BIROLAK

%20

ZAPATILAK

PARE SOLTEAK

2.000 PTA

%50

TXAMARRAK

FORRO POLARRAK

Udalaitz dorrea
Tfnoa: 79 97 24





Jose Bixente Etxabek, 60 urte beteko ditu aurten artzain. 13 urtekin joan zen Degurixara eta harez gero, urtero-urtero Degurixan ematen ditu dendoraldi luzeak. Bixentek

176 ardi ditu eta azken egunetan berrogei bat bildots jaioko dira bere artaldean. Bildots horiek ez dira ez azkenak izango, datozen egunetan beste horrenbeste jaioko direla

esan digu-eta. Ardiak, baserriko lanak, mendia... ditu gogoko, eta sasoia daukan bitartean, lan horiekin jarraitzeko asmoa du Jose Bixentek. Osasuna!



San Frantzisko Xabier ikastolan, Institutuan eta San Andres herri eskolan ebakuazioa egin zuten martizenean. Ikasleei sua zegoela pentsarazi, alarma jo eta ikasleek zein irakasleek agudo hustu zituzten gelak patorra joateko. Ikasleek suaren aurrean zer neurri hartu behar diren jakin dezaten antolatu zen ekintza. Neurriak aurretik hartzea ez dago txarto. Argi ibili eta burua erabili!



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118


HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Urbina-Maltzagak derbi Jende asko joan zen bizkarrean hartu eta interesgarria jokatu zuen partidura Arrasatetik eta lruñeara joan ziren domekan Señorío de Peña Otxoakoek ere ez pozaren pozez. Horreik Zuásti taldearen kontra. zuten kale egin. Ikurriña bai jarraitzaileak!

Bea Narbaiza, 26 urte, ermuarra izango da telebistako laborategian egin du lan orain ATBko teknikari eta kazetari berria. Beraz, hemendik aurrera Bearen Kazetaritza ikasi zuen Leioan Beak. aurpegia eta ahotsa ezaguna egingo zaigu Unibertsitateko Kazetaritza Fakultatean, mondrauetarroi. Ongi etorri Bea!



IZEN PROPIOAK

● **Jaione Arregi**, 29 urte, arrasatearra izango da Udaleko Euskara saileko administrari laguntzaile berria. Geografia eta Historia ikasi zuen Jaionek eta aurretik irakasle lanetan ibili da.

● **Xabier Herrarte** Bergaretxe, 22 urteko arrasatearra da Udaleko brigadako gidari berria. Aurretik kamioi gidari ibili da.

● San Felipe Apostol Elkarteko zuzendaritza batzorde berria aukeratu da: Lehendakaria, **Joakin Lagunilla**; diruzaina, **Jose Antonio Aspe**; bokalak: **Jesus Mari Apraiz**, **Jesus Ezkurra** eta **Juan Maortua**.

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

ARKO-k

Erredakzio-buru lanpostua bete behar du

BALDINTZAK:

- Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
- Euskara maila ona.
- Gidatzeko karneta.

BALORATUKO DENA:

- Arrasate ezagutzea.
- Harremanetarako baimena.

LANPOSTUAREN BETE BEHARRAK:

- ARRASATE PRESS-eko zuzendaritza eta ARKO-ko medioen erredakzio buru.

KURRIKULUMAK:

EPEA: Otsailaren 15a.
 Helbidea: Azoka kalea, 1
 20.500 ARRASATE
 Tfnoa: (943) 77 08 15



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

GIDA 95

LEINTZ BAILARAKO DENDA, PROFESIONAL ETA ZERBITZUEN GIDA.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagari buruzko informazio oso eta zehatzena eskaintzen saiatu bagara ere, beharbada zurea falta izango da.

Hurrengo gidan agertu edota berrikuntzaren bat proposatu nahi baduzu bidali iezazkiguzu zure datuak eta proposamena hurrengo helbidera:

ARKO (Arrasate Komunikabideak)
 Azoka kalea 1
 20.500 Arrasate

- EZ DAUKAT GIDARIK ETA JASO EGIN NAHI NUKE.
- GIDA 95-EAN AGERTUTAKO INFORMAZIOA EZ DA ZUZENA.
- NIRE DENDA EDO ZERBITZUEN BERRI EZ DA AGERTU GIDA 95-EAN ETA HURRENGO ALEAN AGERTZEA NAHI NUKE.

(Marka ezazu dagokizun egoera.)

ZER SAIL BOTATZEN DUZU FALTAN?

IZEN-DEITURAK: _____
 IZEN KOMERTZIALA: _____
 HELBIDEA: _____
 TELEFONOA: _____



Futbito 94-95

ZALDIBAR
ZALDIBAR
KO
Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Gaizko Olabarrieta

Goleadak jardunaldiko protagonistak

Gol ugari sartu dute lau multzoetako taldeek 15. jardunaldian. Hamarreko goleada dexente egon da. Zuloak taldeak 10 eta 0 irabazi zuen Iluna Taberna taldearen kontrako neurketan. Zuloak A multzoko 3. toki betetzen du eta 24 punturekin, bigarren faserako sailkatuta dagoela esan dezakegu. Adelaida Haizea eta Kriskibaldaren arteko partiduan, Adelaidak izugarrizko astindua eman zion Kriskibaldari eta 10 eta 0 izan zen azken emaitza. Kriskibaldakoek partidu penagarria jokatu zuten: taldeko onena atezaina izan zen, atera kontuak! B taldeko liderrak, Trikitik, azken bigarren sailkatuaren kontra neurtu zituen indarrak, Monterrey

tabernaren kontra, eta Trikitik bere nagusitasuna eta lidergoa erakutsiz 10 gol sartu zizkion; hala ere, Monterreykoak 2 gol sartzeko gauza izan ziren gutxienez. 10 goleko emaitzak aitatu baditugu ere, 11 gol sartu zuenik ere izan zen. Los Heredia, D multzoko 5. sailkatuak, Teodolito izan zuen etsai, behelaldean sartuta dagoen taldea, eta Los Herediakoek 11 eta 1eko emaitza lortu zuten. Irabaziko zutela ikusten zen, baina hainbestearinoko aldearekin? Ahaztu baino lehen, Irati STSk galdu egin zuen 1 eta 4 Orlando Piratasen kontra. Denbora gutxian astindu bi jaso ditu Iratik eta emaitza errepikatu egin da. Zeozer ete dauka 1 eta 4koak?



**Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Futbito Txapelketa



A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KON	15	13	0	2	71	33	26
ADELAIDA HAIZEA	15	11	2	2	80	28	24
ZULOAK	15	10	4	1	72	31	24
BUKANAK	15	10	3	2	65	48	23
CERV. LEINTZ	15	11	1	3	87	32	23
ZOTZ	15	10	2	3	58	41	22
FOSFOROS	15	10	2	3	59	26	22
KRISKIBALDA	15	8	0	7	49	61	16
HIREI	15	7	2	6	71	46	16
ARRASATE K.	15	6	3	6	62	55	15
FRAGUEL GOL	15	5	2	8	50	57	12
GANDELAS	15	5	2	8	50	46	12
LOS DALTON	15	5	2	8	48	65	12
ATERPE	15	5	1	9	44	59	11
ASTOEN VILLA	15	4	2	9	46	81	10
INSERT COIN	15	3	3	9	62	77	9
EZTANDA EGIN	15	2	4	9	34	80	8
BAYER LEINTZ	15	2	2	11	39	74	6
ILUNA TABERNA	15	2	1	12	33	93	5
STRAUSS	15	2	0	13	41	88	4



B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	15	11	2	2	87	25	24
SUM UGARTE	15	11	2	2	69	27	24
NUEVO TABERNA	15	11	2	2	68	38	24
TOTEM	15	10	3	2	73	30	23
PUB PEOPLE	15	10	1	4	83	52	21
DANOK LAGUN	15	9	3	3	68	41	21
TXEYENEX	15	9	2	4	64	39	20
PEPELUS	15	9	1	5	65	39	19
UGLYS TXINATO	15	8	3	4	77	35	19
PETROLEROS	15	8	2	5	63	42	18
LOS DIMY	15	7	3	5	66	41	17
BERANGO S.	15	8	1	6	59	46	17
ANBOTOSTE	15	5	3	7	40	45	13
NO COMMENT	15	3	4	8	38	84	10
TOVARIXTX	15	3	1	11	20	64	7
LA BANDA	15	2	2	11	35	81	6
ARRASATE ZOO	15	2	1	12	34	88	5
EZKIN. HONTZAK	15	2	1	12	27	81	5
MONTERREY TAB.	15	1	2	12	31	102	4
ORKATZ	15	1	1	13	32	99	3



C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	15	13	0	2	89	26	26
EQUUS	15	11	1	3	76	38	23
LORATEGI	15	10	2	3	52	27	22
ORLANDO	15	10	1	4	70	37	21
AUTOS MURU	15	10	1	4	57	29	21
ARTZANKOS UDA.	15	10	1	4	53	39	21
EXC. LETE	15	9	0	6	52	34	18
KE OXTIAS	15	9	0	6	60	64	18
PERRAHOTSA	15	8	1	6	38	42	17
FRANTZISKANNER	15	7	2	6	50	48	16
NABARROS	15	8	0	7	67	55	16
JOTAKABAU	15	5	4	6	42	50	14
KOKA JUNIORS	15	5	2	8	31	47	12
BODISCA	15	5	0	10	37	46	10
BANEUKO	15	4	2	9	34	49	10
LEYA	15	4	1	10	58	80	9
DKB	15	4	0	11	32	62	8
POTROSORRI	15	3	0	12	33	83	6
FOTO IMAGEN	15	2	2	11	35	55	6
TXOKO TABERNA	15	2	2	11	25	80	6



D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	15	14	0	1	90	31	28
AC SURCOS	15	13	1	1	93	47	27
MSM INGENIER	15	11	1	3	75	36	23
MIKELOS	15	10	1	4	70	35	21
LOS HEREDIA	15	10	1	4	71	48	21
D. A. IRIZTU	15	9	3	3	66	47	21
OJO AVISORE	15	9	1	5	63	46	19
SOKOAKOAK	15	7	2	6	48	51	16
BRONKOTEAK	15	6	4	5	50	62	16
BORROCK'N ROLL	15	6	3	6	56	46	15
LAUTHERRUNNEN	15	7	0	8	57	46	14
ALTZA PORRU	15	6	1	8	57	57	13
BZ SISTEMAS	15	5	2	8	33	46	12
ANORTHOSIS	15	5	0	10	28	35	10
MOTZ	15	4	2	9	53	62	10
KAKAJAURI	15	5	0	10	45	68	10
SUKAR	15	4	2	9	56	77	10
ELISABETH	15	3	0	12	29	79	6
TEODOLITO	15	2	1	12	35	97	5
RESAKAS	15	1	1	13	36	95	3

SEAT



ADI!
2. eskuko
autoak



Udalaitz, S.A.

Opel KADET	SS-8444-X
Citröen AX GT	SS- 3583-AK
Renault 4 GTS	SS-5636-Z
GOLF GT-2	SS-6075-AT
Marbella	SS-3694AB
GOLF GTI.....	SS-2025-F
Renault EXPRESS	SS-6015-AK
Renault 21 TDX	SS-1895-AG

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01 - 79 21 25



16. jardunaldian partidu interesgarriak izango ditugu. Salenco y Konpañia eta Fosforos izango ditugu aurrez aurre zapatuan 12etan. Iturripen An; Orlando piratas eta Ke Oxtiasen arteko partidua eta Sokoakoak eta Ojo Avisoren artekoa, ez dira makalak izango. Eguerdiko 12etan eta ordubetetan jokatu dira. Ordu berean baina Iturripen Bn; Bukanak eta Los Dalton izango ditugu batetik eta Irati STS eta Baneuko bestetik.

BELARRIRA

◆ **Zigorra.** Urteroko pronostikoa bete egin da: lehen fasea bukatu baino lehen, Resakas taldea txapelketatik kanpo geratu da. Resakas ez zen Motzen kontrako neurketan aurkeztu eta ez aurkezteak txapelketa uztea dakarrenez, Resakasek jai dauka Zaldibar Txapelketan.

◆ **Inpugnazioa.** Borrock'n Roll eta Lautherbrunnen arteko norgehiagoka jokatu zen zapatuan eguerdiko 12etan. Lautherbrunnenek 1 eta 0 irabazi zuen, baina taldeko zerrendan ez zegoen jokalaria batek jokatu zuenez, Borrock'n Rollekoek horretaz ohartuz bat, errekurritu egin zuten. Errekurtsoa onartu egin dute antolatzaileek eta garaipena Borrock'n Roll-eri eman diote.

◆ **Lehen fasea bukatzen.** Lau jardunaldi besterik ez dira falta lehen fasea bukatzeko. Fase honetan Zaldibar eta Iturripen jokatu dira neurketak. 2. fasea finalera arte, berriz, Zaldibarren baino ez dira partidua jokatu.

EMAITZAK

A Taldea

- Zotz 5 - Hirei 2
- Cerv. Leintz 4 - Fraguél Gol 2
- Iluna Taberna 0 - Zuloak 10
- Strauss 3 - Arrasate Kirolak 2
- Bayer Leintz 2 - Eztanda egin arte 3
- Kraskibalda 0 - Adelaida Haizea 10
- Astoén Villa 5 - Insert Coin 5
- Bukanak 3 - Ganbelas 8
- Salenco y Kon 3 - Los Dalton 1
- Fosforos 5 - Aterpe 1

C Taldea

- Irati STS 1 - Orlando Piratas 4
- Equus 4 - Baneuko 1
- Potosorri 1 - Foto Imagen 0
- Autos Muru 5 - Koka Juniors 0
- Petrahotsa 4 - Frantziskanner 2
- DKB 1 - Jotakabau 2
- Nabarros 9 - Txoko Taberna 1
- Lorategi potroak 2 - Ex. Lete 3
- Bodisca 0 - Artzankos Uda. 1
- Leya 4 - Ke Oxtias! 5

B Taldea

- Txeenex 1 - Sum Ugarte 4
- Uglys Txinato 2 - Totem 4
- Ezkinako Hontzak 1 - Pub People 4
- Monterrey Taberna 2 - Trikiti 10
- Los Dimy 1 - Nuevo Taberna 1
- Petroleros 5 - La Banda 1
- Pepelus 2 - Danok Lagun 4
- Orkatz 0 - Tovarixt 1
- Anbotoste 4 - Arrasate Zoo 2
- No Comment 4 - Berango Sulk. 6

D Taldea

- Kakajauri 0 - Mikelos 7
- Motz 1 - Resakas 0
- Altza Porru 4 - Sukar 8
- MSM 5 - Argi Ibili 6
- Borrock'n Roll 1 - Lautherbrunnen 0
- D.A Iriztu 1 - AC Surcos 6
- Sokoakoak 1 - Anorthosis 0
- Elisabeth 2 - Ojo Avisore 6
- Los Heredia 11 - Teodolito 1
- B.Z Sistemas 1 - Tronkoteak 2

I
R
T
A
B
E
R
N
A

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

ARTOLA
KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

Karlos
Oianguren

Belarritako, kate eta
eraztunen konponketa

Metalak urtu eta
eraldatzeari

Biteri, 13 behea Tfnoa: 79 34 26

ASTEBURU HONETAN

Larubata 4

Zaldibar

- 8.50 Borrock'n Roll - AC Surcos
- 10.00 Astoen Villa - Ganbelas
- 11.00 Potrosorri - Koka Juniors
- 12.00 Salenco y Konpañia - Fosforos
- 13.00 Sumis. Ugarte - Berango S.
- 14.00 Elisabeth - Teodolito
- 15.00 Los Dimy - La Banda
- 16.00 Hirei - Aterpe
- 17.00 Monterrey Taberna - Nuevo Taberna
- 18.00 Zotz - Fraguol Gol
- 19.00 Uglys Txinato - Pub People

Iturripe A

- 12.00 Orlando Piratas - Ke Oxtias!
- 13.00 Sokoakoak - Ojo Avisore
- 14.00 Anbotoste - No Comment
- 15.00 Iluna Taberna - Arrasate Kirolak
- 16.00 Lorategi potroak - Artzankos Piratas
- 17.00 Orkatz - Arrasate Zoo
- 18.00 Strauss - Eztanda egin arte

Iturripe B

- 12.00 Bukanak - Los Dalton
- 13.00 Irati STS- Baneuko
- 14.00 Los Heredia - BZ Sistemas
- 15.00 Nabarros - Ex. Lete
- 16.00 Bayer Leintz - Adelaida Haizea
- 17.00 DKB - Txoko Taberna
- 18.00 Txeyenex - Totem

Igandea 5

Zaldibar

- 8.50 MSM Ingenieria - Lautherbrunnen
- 10.00 Perrahotsa - Jotakabau
- 11.00 Motz - Sukar
- 12.00 Cer. Leintz - Zuloak
- 13.00 Mikelos - Trokoteak

Iturripe A

- 11.00 Pepelus - Tovarixt
- 12.00 Ezkiñako Hontzak - Trikiti
- 13.00 Autos Muru - Frantziskaner

Iturripe B

- 11.00 Petroleros - Danok Lagun
- 12.00 Kriskibalda - Insert Coin
- 13.00 Altza Porru - Argi Ibili



Lehen fasea bukatzen; eta gero zer?

Lehen fasea otsailaren 25-26ko asteburuan bukatuko da. Talde bakoitzetik zortzi lehenak sailkatuko dira bigarren faserako. Fase horretan zozketen bidez, zortzi ekipotako lau talde berri egingo dituzte. Horrela, bada, beharrezko zazpi partiduak jokatu ondoren, talde bakoitza osatzen duten zortzi taldeetatik lau lehenek hirugarren faserako txartela lortuko dute. 3. fasean lau ekipoko lau talde berri egingo dira. Hemen ere, hainbat neurketa jokatu beharko dute eta bi lehenak bakarrik sailkatuko dira final-laurdenetarako. Ondoren, final-erdiak etorriko dira

eta azkenik finala. Azken faseetako kanporaketak partidu bakarrera jokatuko dira. Neurketa bukaeran berdinketa egongo balitz, gehienez 10 minutuko luzapena jokatuko litzateke. Arau hori berria da, orain arte penaltien bidez erabaki dituzte berdinketak eta. Luzapenaren bukaeran berdinketak jarraituko balu, penalti jaurtiketarekin erabakiko litzateke talde irabazlea. Bigarren fasetik aurrera, antolatzaileek ezarriko dituzte epaileak, final erdietan eta finalean izan ezik. Bi kasu horietan taldeek izango dute epaileak aukeratzeko ardura.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

J. Luis Ormaetxea "Txipi" Arrasateko lekuizenak jasotzen

Lau urte pasa dira J.Luis Ormaetxea, "Txipi" gaitzizenez ezagunagoa, Arrasateko toponimiari buruzko ikerketa egiten hasi zenetik. Horregatik, lehenago ere izan dugu bere ikerketaren berri. Orditik baina, lanean jarraitu du Txipik eta dagoeneko, 2000 lekuizen baino gehiago aurkitu ditu Arrasaten. Berak esaten duen moduan, gainera " ikerketa bukatu barik dago oraindik eta badago zer azertu, baina horretarako, komentu batean fraile sartu beharko nintzateke".

- Orainago, ikerketaren bigarren zatia aurkeztu duzu.

- Bai, 90ean hamalau hilabeteko beka eman zidan Arrasateko Udalak, herriko toponimiari buruzko lana egiteko. Bi urte beranduago lana aurkeztu nuen baina orditik ere ikertzen jarraitu dut. Iaz, ostera, Juan Carlos Guerraren artxiboan oinarrituta toponimiari buruzko lana osatzea komeni zela gomendatu zion Euskaltzaindiak Arrasateko Udalarari. Horregatik, lau hilabeteko beste beka bat eman zidaten eta Errege egunean aurkeztu nuen lanaren bigarren zati hori.

- Orduan, batez ere Juan Carlos Guerraren artxiboa arakatu duzu oraingoan.

- Bai, artxibo horretako dokumentu zaharretan toponimo asko ageri da-eta, baina Jose Letonarena ere azertu dut apur bat. Horrez gain, baserritarrei eta kaletarrei gal-

detu diet eta horrela, lekuizen batzuk ahoz ere jaso ditut.

- Zergatik da garrantzitsua toponimia aztetzea?


- Toponimia aztertuz, herri bateko hizkera zelakoa zen jakiteko aukera izan dezakegu, hau da, lekuizentan euskara zelakoa zen ikusi ahal da. Bestetik, lexikorako ere garrantzitsua da, galduta ditugun hainbat berba toponimian ageri dira-eta. Gainera, aspaldiko bizimodua zelakoa zen ere jakin daiteke. Lurrak ematen zuenetik bizi ziren aintzina eta horregatik, terrenoaren deskribapenaz zerikusia zuten izenak jartzen zizkieten lekuei.

- Estatu espainiarrean Gipuzkoa ei da toponimo gehien duen probintzia. Arrasate ere aberatsa da horretan?

- Gipuzkoa orografia aldetik oso menditsua denez, milaka toponimo dago. Arrasate ere menditsua da eta lekuizen asko dago. Nik bi milatik gora jaso ditut baina gehiago ere badira. 800 bat ahoz jaso ditut eta horregatik, eskerrak eman nahi nizkieke lagundu didaten guztiei eta batez ere baserritarrei. Besteak, berriz, artxiboetan aurkitu ditut baina, esan bezala, artxibo gehiago ere iker daiteke

.- Denborarekin toki batzuen izenak aldatu egin ei dira.

- Bai, horren lekuko dugu orain Zaldibar izenez ezagutzen duguna. Aspaldi Zalgibar deitzen zen, nik neuk horrela idatzirik aurkitu dut eta gainera, logikoagoa iruditzen



zait Zalgibar izatea, baina ez dakit izen hori nondik datorren. Zaldispe ere ez da sekula horrela izan, lehen Zalospe, Zaluspe edo Zalduspe deitzen zioten. Erdikokaleari ere, XX. mende arte Arte kale esaten zitzaion.

- Zure gomendioa ez da orain izen horiek aldatzea baina Udalaiz izenaren inguruan baduzu zer esanik, ezta?

- Gaur egun Udalaiz esaten du jende gehienak, baina toponimian hemengo hizkeraren berezitasunak gordetzen badira, guk ere gorde egin behar ditugu. Uribarri esaten dugu eta ez Uriberrri, Urbaltz esaten dugu eta ez Urbeltz, beraz Udalatx esan beharko genuke (edo beste batzuk deitzen dioten moduan Udelatx) eta ez Udalaiz. Gainera, kontzentsua dago horrelako formak gordetzeko eta Euskaltzaindia ere horren aldekoa da. Baina borroka hori

galduta daukat.

- Kanpanzarren inguruan zer duzu esatekorik?

- Bigarren "n" hori oso garrantzitsua da eta jende askok, berriz, Kanpazar deitzen dio. Esan bezala, Kanpanzar esan behar da, leku horrek kanpaekin duelako zerikusia.

- Zure lana nori gomendatuko zenioke?

- Lana eginda dagoen bezala ez da jendeak irakurtzeko modukoa. Polita litzateke beste era batera moldatu eta liburu bat egitea, baina dagoen moduan, filologian dabilenentzat da interesgarria.

- Toponimia ikertzen jarraitzeko asmorik?

- Gustora egingo nuke baina oraingo ez dut horretarako asmorik. Lan honek ordu asko sartzea eskatzen duenez, komentu batera joan eta fraile sartu beharko nintzateke. Ea beste norbait animatzen den eta ikertzen jarraitzen duen.

● **"Udalaitz esan beharrean, Udalatx esan beharko genuke"**

Deba erreka:

Argi gorria piztuta

Maria Agirre

Euskal Herriko kutsatuenak ei da gure inguruko herrietatik pasatzen den erreka. Lehendik ere bagenekien Deba ibaiak itxura garbirik ez zuena, baina EHko zikinena dena jakiteak ematen du zer pentsatua. Errekak aspaldi piztu zuen argi gorria. Gu, oster, ez gara oraindik arazoaren larriaz jabetu.

Leintz-Gatzaga baino gorago, Deba erreka garbi jaiotzen da. Han erreka uraren usaia ona eta freskoa da, uraren itxura garbia eta arrainak ere ikus daitezke. Osasuntsu jaiotzen da baina Eskoriatzara heldu bezain laster, gauzak erabat aldatzen dira. Etxeatatik eta industrietatik botatzen direnak uraren kolorea ilundu egiten dute eta afoñua nabarmen bihurtzen da. Hortik aurrera, zenbat eta beherago, okerrago. Aretxabaletan egoerak ez du onera egiten eta Arrasaten, gainera, areagotu egiten da.

ERREKAREN EGOERA


Errekaren egoera tamalgarría ez da atzoko kontua. Hirurogeigarren hamarkadan gertatu ziren garapen industrialak eta biztanleriaren ugartzeak ez zioten mesede handirik egin Deba ibaiari eta ezta Aramaio errekarari ere. Azken hori ere garbi iristen da Arrasateraino baina herri-

ra sartu bezain laster izugarri kutsatzen da. Hala ere, ezer gutxi egin da egoerari buelta emateko. Ikerketak egin izan dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak hala eskatuta, 90ean Gipuzkoako ibaien kalitate biologikoaren ikerketa egin zuen Aranzadi Zientzi Elkartek eta gure erreka gainean honakoa esaten du: "Deba erreka egoera oso txarra da. Probintziako zikinena da, herriko eta industrietako isurketak erreka garbitu barik heltzen dira. Errekuperatzeko ere zailena da baina hori lortzeko, hondakin toxikoen isurketa eten eta herri barruko hondakinzentzat araztegia jarri beharko litzateke".

Mikel Olabek, EKI ekologi taldeko partaidea ere, erreka berreskuratzea zaila dela uste du: "Etxeatiko eta industrietako hondakinak botatzen direnez, isurketa mixtoaren arazoa dago eta horrela erreka garbitzea gatzagoa eta garestiagoa da. Baina gauza garestiagoak egiteko dirua dagoen moduan, erreka berreskuratzeko planari ere ekin egin beharko litzaike. Udalean, esatebaterako, alderdi guztiak bat datoz erreka garbitu egin behar dela esatean, baina inork ere ez du ezer egin. Orain dela lau urteko udal hauteskundeetan Deba eta Aramaio errekei buruz agindutakoa, alderdi batek ere ez du bete".

H

iri barruko eta industrietako isurketek zikintzen dute erreka eta horri aurre egiteko depuragailuak jarri behar dira.



Probintziako erreka zikinena da Aranzadi Zientzi Elkartearen ustez.

Egia da, bestalde, guk geuk ere erreka zabortegi bihurtu duguna. Horren lekuko azken hilabeteotan erreka garbitzen ibili diren langileek batutakoa: 50 tona zabor. Tamainua txikiko zaborretatik hasi eta erreka botatako motor zahar nahiz oheko koltxoiak ere batu dituzte. Baina Mikel Olabek esaten duen bezala "herritarrok aingeru bihurtu arren, errekek zikin jarraituko luke. Izan ere, hiri barruko eta industrietako isurketek zikintzen dute erreka eta horri aurre egiteko depuragailuak jarri eta kanalizazioaz bukatu behar da. Errekari bere bidea jarraitzen utzi behar zaio, bestela ibaie-tako ekosistema apurtzen da eta gainera, erreka desbideratu behar bada porlanaren orde z harria sartu beharko litzateke.

GARBI IKUSTEKO ESPERANTZARIK BAI?

Londongo Thamesis ibaian izokinak ikus badaitetzke orain, Deba erreka garbitzeak ez du ezinezko kon-tua behar.

ISEArentzat, ingurugiro arazoak dituzten enpresei irtenbidea aurkitzeaz ardura-tzen den enpresa arrasatear-arentzat, gainera, enpresariak ere gero eta gehiago arduratzen dira ingurugiroaz. Jon Zubiriaren ustez: "Naturaren onerako gaur egun pro-dukto berdeak saltzea erraza goa da eta etiketa hori lortze-ko enpresariak garbi produ-zitu eta ingurugiroa zaindu egin behar dute.

Enpresariak ere badute ingurugiroarekiko sentsibili-zaziorik, baina lantegia aurre-ra atera behar dute eta horri ematen diote lehentasuna. Depuragailuak jartzea, gai-nera, oso garestia da baina apurka-apurka konturatzen ari dira ingurugiroa zaintzen ez badute, produktuak saltze-ko ere arazoak izango dituz-tela".


Krisi ekonomiakoak 93an gogor jo zuen baina hobe-kuntza igarriaz doanez, ISEAkoek gero eta eskari gehiago jasotzen dute ingu-ruko enpresetatik. Duda ba-rik, zerbait mugitzen ari de-naren seinale da hori eta ho-rregatik, Jon Zubiriak ez du galdu erreka garbi ikusteko esperantza. "Gauza zailagoak egin izan dira eta erreka gar-bi daiteke, baina denbora eta dirua eskatzen du horrek".

Deba Garaiko Mankomu-nitateak ere, erreka isurke-ta egiten duten enpresen ego-era aztertu eta ibaia berres-kuratzeke plana diseinatu du. Plan hori garatzen hasi berria da Cristina Iraolagoitia, Man-komunitateko ingurugiro tek-nikaria: "Isurketen arazo az-tertzen hasi ginenean, admin-istratioko erakunde desber-dinen artean harreman gutxi zegoela ikusi genuen. Uda-letxeek, diputazioak... bakoit-zak bere aldetik zerbait egi-ten zuen baina koordinazio barik eta gainera, adminis-tratioko erakundeen eta en-presen arteko harremanak moztuta zeudela jabetu ginen. Horregatik, arazo horretan dinamizatzaile gisa parte har-tzea erabaki zuen Mankomu-nitateak".

Errekara isurketak egiten dituzten enpresarekin harre-man zuzena izatea da Man-

D

**eba garaiko
mankomunitateak
erreka
berreskuratzeke
plana diseinatu
du.**



Eulen enpresako langileek 50 tona zabor jaso dute Arrasateko zatian.

komunitatearen asmoa. Ho-rretarako, lehenengo eskutitz bidez planaren aurkezpena egin zaio hainbat enpresari eta ondoren lantegi horietara joan dira zein isurketa egiten duten eta enpresariaren bo-rondatea, kezkak eta egoera zeintzuk diren jakitera. Man-komunitatearen asmoa enpre-sariei irtenbideak bilatzen la-guntzea eta dirulaguntzak nondik jaso ditzaketen argi-tzea da, jakina. Dagoeneko Eskoriatza eta Aretxabaletako enpresetan izan dira eta Irao-lagoitiaren ustez, planak har-rera ona izan du eta enpresa batzuk animatu egin dira de-puragailua ipintzera: "Hasie-ran ez zuten gudan konfi-dantza handirik. Enpresetara askotan heltzen dira erakunde batek edo besteak ingurugi-roari buruz bidalitako inkes-tak, baina enpresariak ez daki nora jo dirulaguntzak eta lor-tu nahi baditu. Guk, berriz, laguntza hori eskaini diegu

eta ondo erantzun dute". Es-koriatza eta Aretxabaletako enpresekin egon ondoren, as-teotan Arrasatekoek jasoko dute plan horri buruzko infor-mazioa eta ondoren beste her-ri batzuetakoen txanda eto-rriko da, erreka ibilbidea-ri jarraituz.

Baina guzti hori nahikoa ote da? Zenbat urte pasa be-harko dira emaitzak ikusteko? Ingurugiro teknikariaren ber-betan, badago erreka berres-kuratzeke esperantza baina prozesua poliki-poliki joango ei da. EKiko partaidearen iritiz, berriz, Mankomu-nitatearena ez da nahikoa eta benetako plana egin beharko litzateke. Horrez gain, Irao-lagoitiak esaten duen bezala, benetako irtenbidea teknolo-gia garbia erabiltzea izango litzateke; hau da, kutsadurarik sortzen ez duten makinak erabiltzea, horrek produkzio prozesua garestitu egiten due-la jakin arren.

Anartz Azkarraga: Urrea eta zilarra pisu jaurtiketan

Anartz Azkarragak marka ezin hobekak lortu ditu Euskadiko eta Gipuzkoako atletismo txapelketetan. Gipuzkoako txapelketan urrea lortu du 5 kiloko pisu jaurtiketan eta zilarra Euskadikoan. Bere jaurtiketa 11'82 metrokoa izan zen. 14 urte baino ez ditu eta etorkizun benetan ona ikusten zaio.

- Horrelako emaitzak lorzea uste zenuen?

- Ez, hasieran beldurturik joan nintzen. Lehen mailako kadetea naiz oraindik eta ez nekien zer aurkitu behar nuen. Txapelketa hasi zenean, gehienak ni baino nagusiagoak ziren eta horrek errespetoa ematen zidan. Gero jaurtitzeko ordua ailegatu zitzaidanean, ez zela horrenbesteko pentsatu nuen.

- Ze marka zenuen aurretik?


- Udan hasi nintzen entrenatzen eta orduan 8 metro egin nuen. Partehartu nuen lehen txapelketan 10'50 metro. Azken txapelketan, berriz, 11'82 metro egin ditut. Apurka-apurka hobetuz noa.

- Ze maila egon zen txapelketan?

- Ez zen talde asko joan eta partehartzaileak ere ez ginen asko izan, beraz, erdizpurdiko maila egon zela esango nuke.

- Zer sentitu zuen urrezko domina jasotzean?

- Emozionatu egin nintzen. Gipuzkoako txapelketan urrea jaso nuenean izugarria izan zen niretzat, batez ere, ez nuelako espero eta Euska-



Anartz Azkarraga etorkizun oneko kirolaria.

dikoan podiumera igotean, oraindik poziago nintzen.

- Oso gaztea zara baina nola ikusten duzu zure etorkizuna?

-Kirolean nahiko ondo nabil; atletismoan lortu ditudan markak onak izan dira. Dena dela, zerbait lortu gura badut lan asko egin behar dudana badakit.

- Nora heltzeko asmoa?

- Gatxa da hori esatea, ahal dudan urrutien heltzea gustatuko litzaidake eta horretarako ahal dudan lan guztia egiteko gertu nago.

- Pisu jaurtitzaila eta Mondrako atezaina, nola izan daiteke hau?

- Hasi atletismoan hasi nintzen, gero Mondrako pro-

bak egin nituen eta hartu egin ninduten. Kirol biak gustoko nituenez aurrera jarraitu nuen.

- Zenbat entrenatzen duzu?

- Martizen, eguen eta eguakotxetan atletismoko entrenamenduak ditut. Astelehen eta eguaztenetan, futbola. Asteko egun guztiak ditut beteta.

- Ze entrenamendu mota egiten dituzu?

- Era askotakoak. Esatebaterako martizenetan pisua lantzen dut, eguaztenetan korrika eta belozidada lantzeko probak egiten ditut. Beste batzutan indarra lantzeko ariketak. Denetik.

- Nola konbinatzen dituzu

kirol biak?

- Niri atletismoa gehiago gustatzen zait, atletismoak zerbait berezia du, zure lana egunetik egunera ikusten duzu. Zure hobekuntzak berehala ikus ditzakezu eta gauzak ondo irteten ez badizute frustrazioa handia izaten da. Futbola, ostera, beti da gauza bera.

- Zein kirol duzu gogokoena?

- Atletismoa gehiago gustatzen zait. Baina futbolearen jarraitzeako asmoa ere badut.

- Nola daramazu kirola eta ikasketak?

- Nahiko ondo, ikasteko denbora ere bilatzen dut. Gainera azterketak ditudanean ez dut entrenatzen, hurrengo astean maila ez jeisteko gehiago ahalegindu behar naizen arren.

- Zeintzuk dira zure entrenatzaileak?

- Atletismoan Fernando Zufiria eta Asier "Ranbo", futbolearen Juan Luis Arkauz.

- Futbol entrenamenduak ala atletismoko entrenamenduak, zeintzuk dira gogorra-goak?

- Ez dago hori esaterik. Batzutan atletismoa da gogorragoa beste batzutan futbola. Egunak daude.

- Idolorik baduzu?

- Pisu jaurtiketan, Iker Zukia, Ordizia kirol eskolako gustatzen zait. Kadetea da eta iaz 5 kiloko pisu jaurtiketan 18 metro eta 25 zentimetro lortu zituen, marka ezin hobea; gainera gaztea da. Atezainetan Arkonada dut gogokoena.

Etorkizunez beteta datorren taldea osatuta

Arrasateko rugbyko emakumeek taldea osatu dute eibarkoekin batera. Herri bietan arazoak izan zituzten taldea sortzeko. Eibarren nahiz Arrasaten ez zegoen taldea osatzeko beste neska, beraz, elkartzea erabaki zuten. Arrasate Rugby Taldea izenarekin ezagutzen da taldea. Hemeretzji jokalaria daude: bederatzji eibartarrak dira eta hamar mondragoetarrak. Ostiralero elkartzen dira Garagartzako zelaian entrenamendua elkarrekin egiteko. Asteazkenean, ostera, Jon Zarragoaren gidaritzapean entrenatzen dute Eibarko jokalariek eta Kako Merchan-en aginduetara arrasatearrek. Euskal Liga jokatzeko ari dira, une honetan. Duela 2 aste hasi zuten denboraldia eta Atletico Bera Bera taldearen kontra jokatu zuten lehen neurketa. Garaipena arrasatearrentzat izan zen 5-10 emaitzarekin. Bigarren jar-



Gogoz eta ilusioz hasi dute denboraldia Rugby jokalariek.

dunaldia joan zen zapatuan jokatu zuten Garagartza Arrasate eta Irun taldeek eta arrasatearrek 10 eta 0 irabazi. Neskak zelaian gero eta hobeto kokatzen direla eta gero eta Rugby hobea egiten dutela esan digu entrenatzaileak. Datorren asteburuan, Gaztedi taldearen kontra jokatu dute Garagartzan.

Partidu horrek denboraldiko lehena izan behar zuen baina Garagartzako zelaia izoztua zegoela-eta ezin izan zuten jokatu. Horrela, bada, neurketa aste honetan jokatu da arratsaldeko 4retan. Gaztediren kontra jokatu eta gero, talde bizkaitarrak izango dituzte aurrez-aurre. Hauen kontrako neurketak zailagoak

izango direla ematen du: bizkaitarrak urte dextente darabate Rugbyan jokatzeko eta esperientzia, nahi eta nahiez, igarri egiten da.

Euskal ligan 8 taldek jokatzeko dute: Gaztedi, Getxo, Irun, Durango, Kakarraldo, Elorrio, Bera-Bera eta Arrasate.

JOKALARIAK

Mertxe Elorza - Atzelaria
Arrate De Marcos - Mele erdia
Amaia M ^o de Lejarza - 3. ler. giltza
Irene Txurruka - Harroina
Izaskun Zubikarai - Zabaltzailea
Sandra Gomez - Harroina
Alaitz Rodriguez - 3/4ko 2. erdia
Elisabeth Perez - 3/4ko 2. erdia
Elisabete Matilla - 3/4ko 1. erdia
Josune Rivera - Mele erdia
Leire Markina - Orpotzailea
Igone Mendizabal - Hegal aurrelari
Ana Uribesalgo - Hegalekoa
Oihana Barandiaran - Harroina
Oihana Loiti - 3. lerroko hegalekoa
Leticia Gomez - Hegalekoa
Elena Errarte - Hegalekoa
Oihana Aranburu - Atzelaria
Iraia Urrutia - Aurrelaria
Maitena - 3/4ko 2. erdia
Nagore - Hegalekoa

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Balmaseda 0 Mondra 1
 2. Erregionala: Mondra 2 Aloñamendi 1
Emakumeak: Elgoibar 1 Mondra 0
Jub Ohorezko Liga: Don Bosco 5 Mondra 0
 2. Jubenilak: Gazteak 6 Arrasate 1
Lehen kadeteak: Arrasate 4 Beasain 1
 2. Kadeteak: A. bat 0 Arrasate 1
Infantilak: Eibartarrak 8 Arrasate 1
Hurrengoak:
 3. maila: mondra - Hernani. Igandea. 4.15etan. atxabalpe.
 2. Erregionala: Eibar - Mondra. Larunbata. 6etan.
Emakumeak: Mondra - Intxaudi. Igandea. 11etan. Atxabalpe.
Jub Ohorezko Liga: Mondra - Hamaika Bat. Larunbata.

4.15etan.

2. Jubenilak: Arrasate - Bergara. Igandea. 9etan.
Lehen kadeteak: Almen - Arrasate. Larunbata. 12.15etan.
 2. Kadeteak: Arrasate - Illintxa. larunbata. 11etan.
Infantilak: Arrasate - Hamaika Bat. Larunbata 2.15etan.

Saskibaloia

Eba Liga: S. de Zuasti 84 Urbina Maltzaga 82
Seniorrak S-23: Prospektik 54 Urbina Maltzaga 62
Juniorrak A: Iraurgi 60 Urbina Maltzaga 57
Juniorrak B: Aralar Kirolak 51 Urbina Maltzaga 24
Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga 44 Lasarte-Oria 33
Kadeteak A: Urbina Maltzaga 83 Aldapeta 72
Kadeteak B: Urbina Maltzaga

62 Askatuak 74

Kadetak Emak B: Urbina Maltzaga 52 Ondartza 18
Hurrengoak:
EBA Liga: Urbina Maltzaga - Burgos. Igandea. 6etan. Iturripen.
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - Lagun artea. Larunbata. 4etan. Arrasate.
Juniorrak A: Urbina Maltzaga - Andraitz. Igandea. 11.30etan. Arrasate.
Seniorrak Emak: Escuela ingenieros - Urbina Maltzaga. Igandea. 12.30etan. Donostia.
Kadetek A: Juven - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Donostia.
Kadetek B: San Benito Ikastola - Urbina Maltzaga. Larunbata. 11etan. Lazkao.
Kadetek Emak A: Amigos Baloncesto - Urbina Maltzaga.

Igandea. 10.15etan. Irun.

Eskubaloia

Lehen Maila: Casablanca 28 Arrasate 26
Lehen territoriala: Arrasate 14 Aloñamendi 24
Jubenilak: Arrasate 21 Ordizia 15.
Hurrengoak:
Lehen Maila: Arrasate - Telde
Lehen Territoriala: Akondia - Arrasate.

Futbitoa:

Lehen Maila: Erandiotarra 8 Arrasate 3
Arabako territoriala: Alegria 7 Arrasate 5
Hurrengoak:
Lehen Maila: Atsedena
Arabako territoriala: Arrasate - Donuts. Larunbata. 5etan. Musakolan.

Rugby

Lehen maila: Atletico Bera-Bera 17 Arrasate 10
Jubenilak: Urretxu 0 Arrasate 84
Emakumeak: Arrasate 17 Irun 0
Hurrengoak:
Lehen Maila: Eibar - Arrasate. Larunbata.
Emakumeak: Arrasate - Gaztedi. Larunbata. 4etan. Garagartzan.

Pilota

Eskuz Banaka: Arrasate 9 Mañaria 18
Paletan: Arrasate 33 Llodio 35
Hurrengoak:
Eskuz Banaka: Arrasate - Ortuella. Larunbata. 11etan. Aramaion.
Paletan. Arrasate - Idiazabal. Larunbata. 11etan. Aramaion

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
 Tfnoa: 79 20 56

Azukrerik gabeko zapore gozoa (I)

Sarri askotan, azukrea gehitu beharrean, beste sustantzia batzuk gehitzen zaizkie elikagaiei zapore gozoa emateko. Modu horretan, zapore gozo berbera edo indartua lortzen da. Mota honetako elikagaiak, txantxarrik edo kariesik ez izateko, diabetikoei laguntzeko edo argaltzeko dietetan erabiltzen dira, azukrerik ez daukate-eta.

Zapore gozoa ematen duten sustantzia gozo hauek, edulkoranteak dira. Normalean elikagaiei azukre naturalak gehitzea da: sakarosa (erremolatxa edo azukre kainatik ateratako azukre arrunta) edo fruktosa (fruitu eta eztiaren azukrea). Askotan, baina, azukre edo edulkorante artifizialak ere gehitzen zaizkie.

EDULKORANTE ARTIFIZIALAK


Azukrerik erabili ezin denean edo gozo zaporea gehitu nahi denean erabiltzen dira. Nahiz eta azukrerik gabeko txikleetan eta dieteti-

ka produktuetan oso arruntak izan, dituzten berezitasun guztiak ez dira onak.

HOBEAK OTE DIRA AZUKRERIK GABEKO TXIKLEAK?

Azukrerik bako txikleek ez daukate guk azukrea esaten diogun hori (sakarosa). Azukre hau da umetan hain normala den txantxarrien arduradun nagusia. Horrela bada, sakarosaren orde, haginei kalterik egiten ez dizkieten konposatu gozo batzuk erabiltzen dira txikle hauek egiteko: sorbitola, manitola eta xilitola, batez ere. Hala ere, edulkorante hauek ez dira perfektuak, zeren eta txikle gehiegi jaten bada, liseri aparatuan zenbait arazo sor dezakete. Kantitate egokiak jakiteko txikle paketeen begiratzea komeni da, bertan ikusi ahal dira-eta, zahar eta gazteek egunean jan ditzaketen kantitateak.

SAKARINA ARRISKUTSUA DELA EGIA DA?



Argaltzeko dietetan erabiltzen den edulkorantea da sakarina. Zaporea ematen die elikagaiei. Gure gorputzak, oster, ezin du hartzen dugun sakarina aprobetxatu energia lortzeko, eta beraz, ez du gizentzen.

Minbizia eragin dezakee-

la ere sarri entzun izan dugu. Hala eta guztiz ere, hau ez da sekula zientifikoki demostratu. Sakarinaren aurkako kanpaina izan dela pentsa daiteke, azukre industriek eragindakoa gainera, dagoen konpetentzia handia delako.

MAIDER NUIN ETA J. SANCHEZ



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Z E R N A H I A G O ?

Rafael Gomez

Al-Andalus elkarteko lehendakaria



- **Nongoa zara?** Montillakoa. Cordoba.
- **Noiztik Arrasaten?** Hamalau urte neukala etorri nintzen, 66an.
- **Eta Al-Andaluseko lehendakari?** Elkartea sortu zenetik, 90eko urtariletik.
- **Zer musika mota gustatzen zaizu?** Dena, baina batez ere, flamenco.
- **Flamenco artea da?** Nik baietz uste dut. Ezer baldin bada, artea da.
- **Zezen zalea zara?** Ez asko. Ez daukat amorrurik haundirik.
- **Arantzazuko Amabirjina ala Rociokoa?** Rociokoa.
- **Zer somatzen duzu faltan Arrasaten?** Kulturen arteko ezagutza eta elkarbizitza.
- **Irakurtzen duzu ARRASATE PRESS?** Nik begiratu egiten diot, baina nire seme-alabek irakurtzen dute.
- **Baduzu konfiantzarik politikan?** Gero eta gutxiago. Askok eduki izan dit.
- **Zerk amorrarazten zaitu?** Jendearen ezin elkar ulertzeak, eta berba faltsuak.
- **Eta poztu?** Denak, baina gazte jendeak batez ere.
- **Zer behar da ondo bizi izateko?** Zeuk esan duzu: beharrezkoa.
- **Siestarik bai?** Ez dut inoiz praktikatu, baina imagina ezazu bazkaloste bat, kanpoan 50º C.... Non hobeto siestan baino?
- **Betis ala Sevilla?** Betis.
- **Erreala ala Athletica?** Athletica.
- **Zein da zuretako urteko egunik ederrena?** Rocioaren eguna. Uztaileko lehen zapatua.
- **Irakurtzeko ohiturarik baduzu?** Bai. Galaren "El manuscrito carmesi" leitzen nago orain.
- **Emakumeei nora begiratzen diezu lehenengo-lehenengo?** Kanpotik, begietara eta barrutik, bihotzera.
- **Andaluzok ederto botatzen ei dituzue lorak. Demostratuko zenidake?** Guk zera esaten genuen gure sasoiari: "Tienes más salero andando que Manolete toreando".

JAIK

Gesalibarko jaiak

Otsailaren 3, 4 eta 6an, Gesalibarko jaiak ospatuko dira. Ostiralean, arratsaldeko 6etan etxafleroak bota eta hasiera emango zaie jaiari. Gaueko 9etan bertso afari herrikoia izango da "Jentil-Ola" Elkartean, Murua eta Lizaso bertsolariekin.

Larunbateko jai egitarauari haurren jaialdiak emango dio hasiera goizeko 11etan. Ordubate arte, marrazki erakusketa izango da. Eguerdiko 12etan meza nagusia izango da hildakoen omenez auzoko koroak lagunduta. Eguerdiko 2.30etatik iluntzerarte kalera irtengo du auzoko abesbatzak eta bere zaindariaren omenez kantatuko du. Txinparta taldeak alaituko duen dantzaldiak emango dio amaiera larunbateko egitarauari.

Igandean berriz, meza izango da eguerdiko 12etan Garagartzako eta auzoko koroak kantatuta, eta jaiari behar den moduko bukaera emateko, meza ostean, salda beroa eta pintxoak banatuko dira nahi duten guztientzat.



URONDO

elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Proiektuak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Victor Ayala Urtubi "Natura da nire inspirazio iturria"

Victor Ayala Urtubi duela 55 urte jaio zen Arrasaten. Aspaldian, ordea, Donostian bizi da. Hala ere, ez ditu umetan ikusitako paisaiak eta parajeak ahaztu. Azken bi urteetan Urkulu, Aramaio, Ullibarri eta Aretxabaleta izan ditu pintura gai. Emaitza ikusiteko aukera Harresi Artoan duzue, otsailaren 3tik 19ra.



- Nondik datorkizu margotzeko zaletasuna?

- Aretxabaletako Portasol auzoan bainuetxea zegoen garaian, Uranga eta Zuloaga margolariak etortzen ziren. Gure aitona, Aretxabaletako botikaria zen, elkar ezagutu zuten eta zaletasuna erne zitzaion. Umetan aitornarekin, Pablo de Urtubirekin, ibiltzen nintzen ni eta hortik nik eta nire familiak dugun pintatzeko zaletasuna. Oraindik aitonaren margo kaxa gordetzen dut. Izango ditu ehun eta hogeitamar bat urte. Baina nik horixe erabiltzen dut.

- Beraz, familiako kontua da.

- Bai, nire anaiak oso ondo pintatzen du eta nire seme-alabek ere badute adurra.

- Eta zuk noiztik margotzen duzu?

- Betidanik margotzen dut. Ezkondu nintzenean,

70ean, serioago hartu nuen baina umeak hazten zeudela eta utzi egin behar izan nion. 93an eta 94an urte sabbatikoa hartu eta burubelarri egin dut lan.

- Esaidazu zertxobait zure teknika eta estiloaz.

- Oleoa pintatzen dut eta estiloa inpresionista da nolabait esateko. Betik gustatu izan zait estilo hori. Badira pintura batzuk une bat baino harrapatu ezin dutenak, horiek isladatzea gustatzen zait.

- Inspirazio iturri berezirik baduzu?

- Natura da nire inspirazio iturri nagusia. Oraingoan, ura hartu dut gaitzat: bere disdira, mugimendua... Arrasaten aurkezten den %90ak ura du

ardatzat. Hori lortu dudanezuek esan beharko duzue.

- Zein da zure kuadririk gustokoena?

- Ez nuke esan behar baina bi ditut begikoen. Bata Galizian margotutakoa da eta bertako argi gris hori konparazina da. Zenbait urtean bizi izan nintzen bertan eta Baionako portuaren geldotasuna gustatzen zait.

- Imagina ezazu saldu egingo dituzula. Pena emango lizuke?

- Ba, bai. Baina ez litzaidake saltzea inportatuko.

- Pintatzeko momentu berezirik?

- Ez. Arratsalde, gauez edo goizez pintatzen dut. Ba-

tez ere, gustora sentitu behar naiz pintatzen. Gustora ez banago, utzi egin du. Beste margolari batzuk ere antzera egingo dutela uste dut.

- Famatuak ez zareten margolariok, baduzue pinturatik bizitzerik?

- Sekula ez diot neure buruari galdera hori egin. Baina pentsa ezazu zenbat margolari hil eta gero egin den ezagun. Gazteek, hala ere, margotu egin behar dute, nahiz eta bat-bateko arrakastarik ez izan.

- Margolari baten izena esango zenidake?

- Urari buruz ari bazara, inpresionisten gainean hitzegin behar duzu. Orduan, Monet esango dizut.

- Zer dela-eta erakusketara?

- Nire seme-alabek eta Arantza Bazkarane, nire pinturan eragin handiko pertsonak, animatu ninduten erakusketara jartzera. Eta nik, zergatik ez? pentsatu nuen.

- Arrasateko pintoreak ezagunak dituzu?

- Galarta eta Arrieta ezagutzen ditut, margotzen ezagutu nituen txikitan. Jose Angel Iturberen teknikaren berri izan nuen bere erakusketan eta harritu egin ninduen. Izan ere, Arte Ederretako ikasleek beste hamaika teknika daukate.

"Aitonarengandik datorkio gure familiari pintatzeko zaletasuna"



BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABAETA**

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



Aurten hemezortzi urte betetzen dituzten gazteak dira kintoak.

Santa Ageda mutilak Aretxabaltan

Urteroko ohiturari eutsiz, Santa Ageda egunean Aretxabaltako kintoak irtengo dute herriko plazan dantzari egitera. Aurten 18 urte betetzen dituzten mutikoteak dira kintoak eta soldaduzka egitera doazen gazteek egiten duten ospakizuna

erakusten du ohitura honek.

Santa Ageda egunean hasi eta karnabal egunera arte, janari eta diru eske ibiltzen dira baserriz baserri zapatuetan. Domekentan herriko plazan neska bana ateratzen dute kintoek eure-

kin nahasi dantzan egitera. Herriko plazan dantzan egin ostean, neskekin batera kalejira egin eta mokau bat jatera joaten dira tabernetara.

Aurten berrogeitahamar bat kintok irtengo dute Aretxabaltan.

LABURRAK

Ludoteka Ibiltaria

Txatxilipurdi Elkarte duela bi urte hasi zen "Ludoteka Ibiltaria" proiektuarekin eta iaz Musakola, Erguin, Uribarri eta San Andresen egon ziren.

Ludoteka Ibiltariak izan duen harrera ona dela eta, aurtengo urtean ere egitasmo horrekin jarraitzea erabaki dute Txatxilipurdiko arduradunek.

Ekintza horren helburua ume gutzietan jolasteko aukera berberak ematea da, eta talde-jolasa bultzatuaz, lagunarteko giro euskalduna sortzea.

Ludoteka Ibiltariaren lehen geltokia Musakola izan da. Lau zapatu egingo dituzte bertan: lehenengo biak urtarilaren 21ean eta 28an izan ziren baina oraindik otsailaren 4a eta 11 falta dira. Denboraz zaude, beraz, ludoteka ibiltariak gozatzeko

Kontzertua: "Aulos Ensemble"

Arrasate Musikalek kontzertua antolatu du datorren iganderako. Duela urtebete Espainiako Orkestra Nazional Gaztetik sortutako "Aulos Ensemble", piano eta haizezko kamara taldea etorriko da gurera. Kontzertua arratsaldeko 7etan izango da Amaia Antzokian.

MUSIKARIAK

Bost lagunek osatzen dute kamara taldea. Jorge Brontek oboea jotzen du eta gaur egun goi-mailako musika ikasketak egiten ari da Rotterdameko Kontserbatorioan. Daniel Labradak klarinetea jotzen du eta Rotterdameko Kontserbatorio-



Kontzertua arratsaldeko 7etan, Amaia antzokian.

an klarinete irakaslea da. Orain goi-mailako musika ikasketak egiten ari da La Hayako Kontserbatorioan. Iñaki Iraolak berriz, fagota

jotzen ikasi zuen Donostian. Europako Banda Gaztearen partaidea izan zen bi urtean eta gaur egun Espainiako Orkestra Nazional

Gaztean jotzen du eta Badajozeko Kontserbatorioan musika irakaslea da. Miguel Angel Quirosek Granadako eta Madrilgo kontserbatorioetan egin zituen tronpa ikasketak. Gaurko egunean, Espainiako Orkestra Nazional Gaztean jotzeaz gain, irakaslea da Jaengo kontserbatorioan.

Azkenik, kamara talde honetako emakume bakarra: Amaia Zipitria. Donostiako Kontserbatorioan ikasi zuen pianoa jotzen eta irakasle titulua eskuratu. Espainiako Orkestra Nazional Gazteko partaidea da eta gaur egun, sakontze ikasketak egiten jardun du.



L

entro Katolikoan atera zuen erretratua kinto kuadrila honen. 22ko kintoak ziren, 1901ean jaiok.

Eskuman gorengo lerroan hasita, **Kayo Atxa**, bere atzean ezezaguna, **Balentin Sagasta "Mojategi"**, **Modesto Urrutia**, **Txarlot**, **Uribekoa Mondragon**, eta **Luis Agirre**.

Erdian eskumatik, **Patxi Axerikua**, **Zeziaga**, **Uranaga**, Goiru tratantearen semea, **Ugarte**, Mondragoen alkate

egon zena, Santa Agedako txoferra, **Kerejeta**, Gara-gartzar bat eta **Manuel Uriarte**, gaur egun bizi den bakarra. Denen izen-apellidua ez zituen gogoratzen.

Behean, ezkerretik, **Dionisio Mondragon**, musakolar bat, **Garmendia** (Kondeko zubian denda, pasteleria-edo zuena), **Etxalu-**

ze, bastoiaz **Herrero** zapateroa, **Leandro Gorostiza**, **Markaide** Oliakoa eta **"Otxandiano"**.

Oharra

Joan zen astean identifikatzeko agertu zen mutikotea Bittor Errarte dela argitu nahi dugu.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

Begoña
lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

IKASTARO GAZTEAK

Euskal dantzak (lore gazteak)


izen emateak:
gazte bulegoan
☎ 77 00 65

10-14 URTE BITARTEKOENTZAT:

- ★ Otsailaren 16tik San Juanetara
- ★ Ostegunetan, 6.30etatik 7.30etara
- ★ Matrikula: 1.000 pta

15 URTETIK GORAKOENTZAT:

- ★ Martxoaren 24tik San Juanetara
- ★ Ostiraletan, 7etatik 8.30etara
- ★ Matrikula: 1.000 pta



Argazkigintza (ASA)

HASTAPEN MAILA:


- ★ Martxoaren 7tik apirilaren 5era, astearte eta asteazkenetan
- ★ 6.30etatik 8.30etara
- ★ Matrikula: 3.000 pta / 1.500 ikasle eta langabetuentzat

SAKONTZE MAILA:

- ★ Maiatzaren 8tik 25era
- ★ 7.15etatik 9.15etara
- ★ Matrikula: 3.500 pta / 2.000 ikasle eta langabetuentzat

Saltsa (Arnaldo Patterson)

Martxoaren 6tik 17ra (astelehen-asteazken-ostiraletan)



HASTAPEN MAILA:

- ★ Goizez, 11.45etatik - 13etara
- ★ Arratsaldez, 6.15 - 7.30

SAKONTZE MAILA:

- ★ Iluntzean, 8.45etatik - 9etara
- ★ Matrikula: 3.000 pta / 1.500 ikasle eta langabetuentzat.



“Arrazoi onena indartsuenarena izaten da beti”

LA FONTAINE



-50 +R

Noiz iritsiko da Koldo?

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13			14		
15						16	
17					18		
		19			20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Iskasnbila. 9. Adibide moduan. 10. Atzizkia. 11. Semearen semea. 12. Pila. 14. Heldu aditzaren infinitiboa. 15. Zerbait egiteko imitagarri dena. 16. Kenzaburo, 1994ko Liter. Nobel saria. 17. Gar. 19. Turkiako hiriburua.

Bertikalak 1. Bergaretxe, Gurutze Gorriko lehendakaria. 2. Esangura. 3. Zenbaki erromatarrez, 51. 4. Martxa handian. 5. Txanpon baten aldeetako bat. 6. (Ald.) Tutu. 7. Komiki. 8. Gainazalaren neurria. 13. Seta, lehia. 18. Nafarroako ibilgailuetan.

Aries Burusoil geratuko zara txanpua aldatzen ez baduzu.

Taurus Lanari gogoz heldu eta ikusiko duzu gauzak zelan konpontzen diren.

Gemini Ilea mozten ez baduzu, azalare itxura hartuko duzu.

Cancer Edonorrekin ligatzen duzu. Zu ere beherapenetan zaude, ala?

Leo Egutegi musulmanaren arabera, aurtengoa zure urtea izango da.

Virgo Tximista baino azkarragoa zara. Autoan zoazenean, jakina.

Libra Zure gurasoak gero eta larriago daude. Emaiezu bakea!

Scorpio Oinak lurtean eduki eta errealtatea zelakoa den ikusiko duzu.

Sagitaris Sos batzuk irabaziko dituzu jokoan.

Capricorn Aholku bat: zure sentimenduak plazaratu.

Aquarius Badaezpada ere gaur aterkia atera.

Piscis Zenbat pelikula ikusten dituzue egunean? Askotxo, ezta?

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



“Trebelerak”: Eskulanak egiten ikasteko aukera

Juanjo Zabarte, argazkiko gizon irrifartsuak sortutako programa berria, ostegunero izango duzue ikusgai ATBn. Juanjok, bere bi laguntzaileekin batera, Arrate Egiara eta Miren Mentxaka, mila eta bat eskulan erraz egiten erakutsiko digu. Programak ordu erdiko iraupena izango du. Gezurra dirudi etxean baztertuta dauzkagun gauzekin zenbat eskulan egin daitezkeen! Ez gero hutsik egin! Ostegunero 9.30etan “Trebelerak” zure telebistan.

KOMIKIA

KONTUZ, MONDRAUETAR, KUPIDO SAN BALENTIN EGUNERAKO PRESTATZEN ARI DA



PROGRAMAZIOA

**5 Igandea**

21.30etan
Mondragoi. Itxaro
Zubillagak aurkeztua.

6 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

7 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

8 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Gazte-Nahaste”
Eztabaidagaiak: Arrasateko
rock-musika taldeak.

9 Osteguna

13.30etan
“Gazte-Nahaste” (errep.)
20.30etan
Berriak
21.30etan
“Trebelerak” programa
berria.

10 Ostirala

13.30etan
“Trebelerak” (errep.)
19.15etan
Marrakzi Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrakzi Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Kalapita. 9. Adibidez. 10. Ri. 11. Iloba. 12. Meta. 14. Hel. 15. Eredu. 16. Oe. 17. Lama. 19. Anکارa.

Bertikalak: 1. Karmelo. 2. Adiera. 3. LI. 4. Abiadan. 5. Pil. 6. Hodi. 7. Tebeo. 8. Azalera. 13. Tema. 18. NA.

Jeroglifikoak:
Aurki.

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea, 4
ARRASATE Tfnoa: 79 37 64

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Etxebizitzak

- **Pertsona euskalduna behar dugu etxebizitza osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
 - **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
 - **Donostian pisu baten bila nabil.** Zure etxean toki bat badaukazu, deitu 79 77 02 tfnora. Harremanetarako, Santirekin.
 - **Etxebizitza salgai Errebueta kalea, 8** 6-Behea. Tfnoa: 79 41 68.
 - **Etxebizitza bat alokatzen dugu Biteri etor-bidean.** Tfnoa: 77 00 80.
 - **Etxebizitza erosi nahi nuke** 7 eta 9 miloi pta bitartean. Harremanetarako dei egin 79 37 68 tfnora.
- Etxebizitza alokatzen da.** Maixu Guridi, 8 behea. San Andres. Interesatuok dei egin 71 48 27 tfnora.(gaueko Betatik aurrera).
- **Apartamendu berritua salgai Erguinen.** Logela 1, 50m². 8.000.000 pta. Deitu gaue-tan 79 22 12 tfnora.
 - **Etxebizitza salgai Maalako Arrabala, 19.** zenbakian. Tfnoa: 79 78 65.
 - **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.

Lana

- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota persona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 72 19. Txus.
- **OHOKO klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Emakumea prest jatetxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.

- **Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Andra erizain ausiliarra eta esperientziadun gerokultora** pertsona nasguasiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53. Arrasate.
- **Taberna alokagai** atenditu ezin dugulako. Interesatuok dei egin 79 23 81 tfnora, arrasalde.
- **Esperientziadun neska arduratsua eskaintzen da** edozein motatako dendatan saltzaile lan egiteko. Umeak zaindu eta etxeko lanak egin ere egingo lituzke. Tfnoa: 79 73 06.
- **Esperientziadun neska eskaintzen da** umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Laguntzaile bezala egingo luke lan** etxebizitzetan, tabernetan, atarrietan, kontsultategietan,... Tfnoa: 79 96 10.
- **Neska umeak zaindu,** etxeko lanak egin edo lokalen garbitasun lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 37 68.
- **Klase partikularrak ematen dira,** UBI eta asig-natura batzuk (Matematika, fisika, kimika, informatika,...) euskaraz eta erdaraz. Talde txikiak. Tfnoa: 79 56 82 eta 79 71 89.
- **Gaisoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 88 40.

Salerosketak

- **Jangela edo sukalde baterako alazena saltzen dut.** Gaztainondoak egurrez eginda dago eta berri-berria dago. Tfnoa: 79 22 85.
- **Honako gauzok saltzen ditut:** 1,35eko sofa ohea; sukalderako mahai borobila eta zuria, bere aulki eta banketekin; egurrezko kutxa; zumitzezko mahai borobila. Tfnoak: 76 62 85 (Angel, goizeko 9,30etatik 11etara) eta 79 82 18 (Mari Jose, gauez).
- **Lokal komertzial baten bila gabiltza,** 200-

300m²koa eta erdikaldean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.

- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Bigarren eskuko hozkailu bat behar dut.** Tfnoak: (94) 41 11 666 edozein ordutan edo 79 90 36 astelehenetik ostiralera, 3.30etatik 7.30etara.
- **SUZUKI LIDO motorra salgai,** 75 zm³koa. Matrikula: VI-3154-M.3 urte ditu. Mailetero eta parabisarekin. Tfnoa: 79 12 01. Joseba.
- **FORD ESCORT XB3i-a salgai.** (SS-AC). Tfnoa: 71 43 31.
- **Garaje itxia alokatzen da,** Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **10 litroko FAGOR kalentadorea salgai,** ia berria. 13.000 pta. Berogailu japoniarra, handia eta berria, 35.000 pta. Tfnoa: 77 01 64.
- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gauez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30

Denetarik

- **Urrezko pultsera galdu zitzaidan urtarilaren 21ean** Villa Amparo garajeetatik Aldairainoko bidean. Tfnoak: etxeko: 79 00 16. lanekoa: 79 05 35. Gurutze.
- **Erloja galdu zait.** Aurkitzen baduzu, deitu 79 51 21 tfnora. Eluskagatik galdetu.
- **Astelehenetan, goizeko 9ak baino lehen Bilbon egon beharra dut,** baina ez daukat autorik. Norbaitek eraman ahal izango banindu, gastuak erdibana egingo genituzke. Tfnoa: 79 76 90. Ana.

Aste Gazte

Bekak

- **Akitania-Euskadiren arteko lankidetzarako,** 1995. urteko ekitaldietarako dirulaguntzak emateko deialdia egingen da. Eskegileak, pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatuak izan daitezke. Epea: apirilak 28.
- **"Argentaria Fundazioak"** Museologiari buruzko bi bekaren deialdia egingen du, lizenziatuei zuzenduak. Epea: apirilak 28.
- **Kanpo-Arazoetako Ministeritzak,** 95-96 ikasturterako Grezian ikasketak sa-

kontzeko zein grekera modernoa eta kultura helenikoa ikasteko uda-ikastarorako beken deialdia egin du. Epea: otsailak 10.

Lana

- **Donostiako Udalak** lanpostu hauek deitu ditu: Arkitekto lanpostu bat, albaiteko lanpostu bi, ingurugiro goi teknikari lanpostu bat, ingurugiro teknikari laguntzaile lanpostu bat, komunikazioetako operadore lanpostu bat. Epea: otsailak 28, gutxigora behera.
- **Ermuko Udalak** lan postla

hauek kaleratu ditu: Goi mailako teknikaria, erdi mailako teknikaria, laguntzaile teknikoa. Epea: otsailak 20.

Ikastaroak

- **Euskal dantzen ikastaro** bi. a) 10-14 urte bitartekoei zuzendutakoa. Otsailaren 16tik ekainaren 15era. b) 15 urtetik gorakoei zuzendutakoa. Martxoaren 24tik ekainaren 16ra.
- **Argazkigintza ikastaro** bi. a) Hastapen maila, martxoaren 7tik apirilaren 5era. b) Sakontze maila, maiatzaren 8tik 25era.
- **Saltsa ikastaroa.** Martxoaren 6tik 17ra, astelehen, asteazken eta ostiraletan.

"Bere gaztetasuna benetan indartsua dela diote, eta joera bortitzak azaltzen dituela. Erraz maitemintzen da eta zarrastelkeria eta luxua ditu gustoko; hurakan bat bezala doa beraien atzetik."

**"RHADOPIS"
NAGUIB MAHFUZ**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

ONGI ETORRI, KONPAINIA ONEAN EGOTEAK BADU ABANTAILIK



**SEGUROS
BILBAO**

- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar...

**Urtarrilaren 15etik aurrera
Arrasate eta bailara
guztiaren zerbitzura.**

Otalora lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

Tfnoa: 79 70 67



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLENZ METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

**%10eko
deskontua
Gazte-txartelarekin**

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA

- Dieta pertsonalizatuak,
medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa, ez begiak itxi.



Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzariak.

ARRASATEKO BARIANTEAN